2. *Kontratuaren xedea:*
   a) Mota: Ondarezkoa.
   b) Azalpena: Goikoetxe kalea 1-4. I, etxebizitzaren salmenta.
3. *Izapideak eta esleitzeko era:*
   a) Izapideak: Arrunta.
   b) Esleitzeko era: Enkante.
   c) Esleitzeko irizpideak: Ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza, esleitzeko irizpide bakarra preziorik handiena delarik.
4. *Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua:*
   — Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua da: 127.035,00 €.
5. *Eskatzen diren bermeak:* Ez da eskatzen behin-behineko bermerik ez eta behin-betiko bermerik.
6. *Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkeztuko dira:*
   a) Aurkezteko azken eguna: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia hau argitaratu eta biharamunetik hasita 15 egunekoa, 13:00etara arte. Iragarkian ezarritako azken eguna baliogabea edo larunbata bada, hurrengo laneguna izango da.
   b) Aurkeztu beharreko agiriak: Administrazio-baldintza berezietan eta preskripzio teknikoen baldintzetan adierazita.
   c) Aurkezteko tokia:
   — Erakundea: Derioko Udala.
   — Helbidea: Herriko plaza 3.
   — Herria eta posta kodea: 48160-Derio.
7. *Eskaintzak irekitzea:*
   a) Erakundea: kontratazio mahaia.
   b) Helbidea: Herriko plaza 3.
   c) Herria: Derio.
   d) Data: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laneguneko osteguna, 09:30ean, salbu postaz igorri bada, horretan Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorraren arabera izango da.
   e) Ordua: 09:30ak.
8. *Iragarkien gastuak:* Esleipendunaren pentzura izango dira, Pleguaren arabera.
9. *Pleguak web gune honetan hartu ahal dira:* www.deriokoudala.net (Kontratugilearen profila)

Derion, 2014ko martxoaren 6an.—Alkatea, Lander Aiarza Zallo

(II-1623)

2. *Objeto del contrato:*
   a) Tipo: Patrimonial.
   b) Descripción: Venta de vivienda sita en Goikoetxe kalea, número 1, 4.º I.
3. *Tramitación y procedimiento de adjudicación:*
   a) Tramitación: Ordinario.
   b) Procedimiento: Subasta.
   c) Criterios de adjudicación: Oferta económicamente más ventajosa siendo el único criterio de adjudicación el precio más alto.
4. *Presupuesto base de licitación:*
   — El presupuesto base de licitación tiene un importe de: 127.035,00 €.
5. *Garantías exigidas:* No se exige garantía provisional ni definitiva.
6. *Presentación de las ofertas o de las solicitudes de participación:*
   a) Fecha límite de presentación: Hasta las 13:00 horas del decimoquinto día natural contado a partir del día siguiente a la fecha de publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Cuando el último día del plazo fijado en el anuncio sea inhábil o sábado, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.
   b) Documentación a presentar: Según los pliegos de cláusulas administrativas particulares y prescripciones técnicas.
   c) Lugar de presentación:
   — Entidad: Ayuntamiento de Derio.
   — Domicilio: Herriko plaza, 3.
   — Localidad y código postal: 48160-Derio.
7. *Apertura de las ofertas*:
   a) Entidad: Mesa de contratación.
   b) Domicilio: Herriko plaza, 3.
   c) Localidad: Derio.
   d) Fecha: El jueves hábil siguiente al de la finalización del plazo de presentación de proposiciones a las 09:30 horas, salvo en el caso de envío por correo en que se estará a lo dispuesto en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
   e) Hora: 09:30.
8. *Gastos de anuncios:* Serán de cuenta del adjudicatario, según Pliego.
9. *Portal informático o página web donde pueden obtenerse los pliegos:* www.deriokoudala.net (Perfil del Contratante)

En Derio a 6 de marzo de 2014.—El Alcalde, Lander Aiarza Zallo

(II-1623)

•

## Sopelako Udala

**Terrazak eta mahai hankabakarrak kalean jartzeari buruzko udal ordenantza.**

ATARIKOA

Duela gutxi egindako araudi batzuek, esate baterako lokal publikoetan erretzea debekatzen duenak, lurzoru publikoan kokatutako terraza eta mahaitxoen ugaritzea ekarri dute. Instalazio horiek modu ordenatuan jarri behar dira eta bermatu egin behar dira bai oinezkoen zirkulazio egokia baita erabiltzaileen eta ukitutako pertsona nahiz jardueren eskubide eta ondasunen errespetua ere.

Horrekin batera, ordenantza berri honen bitartez, ekimen zehatzak sustatu nahi dira Sopelan merkataritzako jarduera garatzeko eta ekonomia bizkortzeko. Izan ere, araudi hau egiteko, kontuan

## Ayuntamiento de Sopela

**Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en espacios de uso público.**

PREÁMBULO

Normativas recientes como la que prohíbe fumar en locales públicos han tenido como consecuencia el incremento en el número de terrazas y veladores situadas en suelo público. Estas instalaciones deben realizarse de forma ordenada y garantizando la correcta circulación peatonal y el respeto a los derechos y bienes tanto de los usuarios como de las personas y actividades afectadas.

Al mismo tiempo esta nueva Ordenanza tiene el objetivo de impulsar iniciativas concretas que redunden en el desarrollo de una mayor actividad comercial y un mayor dinamismo económico en

cve: BAO-BOB-2014a050

hartu da merkataritza eta ostalaritzako jarduerak udalerako duen interes estrategikoa, aberastasuna sortzeko faktore alboraezina da eta.

Oinezkoentzako espazio publikoa egokiro banatu nahi da, eta instalazioen estetika egokitu, herriko bizilagunek eta bisitariek sumatzen duten kalitate orokorra hobetzearren, eta, azken batean, jokoan dauden interesak eta eskubideak bateragarri egin eta haztatzearren.

Horrela, hainbat faktore mota uztartuz, aukera sorta lortzen da, eta aukera horiek sistematizatzen saiatu da. Hona hemen faktoreok: Inguru motak (trafikodun kaleetako espaloiak, oinezkoentzako guneak, plazak, lorategiak, ataripeak...), terraza motak (egonkorrak, mugikorrak, babesdunak, itxiturak), lurzoru motak (publikoa edo pribatua) eta, garrantzitsuena dena, herritar motak (umeen aulkiak, ezintasunen bat duten pertsonen mugikortasuna...).

**I. kapitulua**

XEDEA, IZAERA, APLIKAZIO EREMUA, ETA EREMU HORRETATIK KANPO UZTEN DIREN INSTALAZIOAK

***1. artikulua.—Xedea eta definizioa***

1.—Ordenantza honen xedea da erabilera publikoko eremu publiko edo pribatuetan terrazak eta mahaitxoak instalatzeko eta instalazio horien funtzionamendurako aplikatuko den araubide juridiko eta teknikoa ezartzea, honako xedapen hauen babesean: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena; ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua, Hirigintzako Diziplinari buruzko Arautegia onesten duena; EAEko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa; eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri ingurune, eremu publiko eta abarretarako irisgarritasun arau teknikoak onartzen dituena.

2.—Aurreko idatz-zatian adierazitakoaren ondorioetarako, terrazatzat joko dira sarbide askeko eta erabilera publikoko espazio publiko edo pribatuetan jarrita dauden mahai, aulki edo bestelako altzari multzoak eta euren instalazio finkoak (baina erraz desmuntatzekoak) edo mugikorrak, hala nola eguzkitakoak, besoak, toldoak, estalki ainguratuak, alboetako babesak, argiak, berogailuak eta abar, ostalaritzako legezko establezimendu edo antzekoren baten aldi baterako edo etengabeko osagarriak direnak.

***2. artikulua.—Izaera juridikoa***

Bide publikoaren okupazio edo aprobetxamenduek edonorentzako erabilera bereziaren kategoria juridikoa dute. Jabetza eskubidea urratu gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe ematen dira. Aldez aurretik udal lizentzia behar dute, eta ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango da lizentzia hori.

Partikularrek ez dute lizentzia jasotzeko inolako eskubiderik eta, beraz, iritziaren arabera emango zaie. Erabakia hartu aurretik haztatu eta uztartu egingo dira interes publikoak eta pribatuak, eta beti errespetatuko dira ordenantza honetan ezarritako gutxieneko baldintzak. Horregatik, Administrazioaren isiltasunak ezespena adieraziko du, eta, beraz, ezin izango da espazioa erabili horretarako bidea ematen duen lizentzia eskuratu arte.

Lizentziak behin-behinean emango dira, beti izango dira behin-behinekoak, eta epea edukiko dute, hau da, eurak ematerakoan kontuan hartu ziren mota guztietako inguruabarrek adina iraungo dute, eta bitarte horretan sortutako beste inguruabarren baten ondorioz ezinezkoa bada lizentziari eustea ukitutako espazio publikoaren erabilera komunari edo interes orokorrari kalterik egin gabe, lizentzia bertan behera geratuko da. Beraz, interes publikoko arrazoiengatik lizentzia aldi baterako eteten bada edo behin betiko kentzen bada, ez da kalte-ordainik izango, baina jabari publikoa erabiltzeagatik kobratu diren tasen zati proportzionala itzuli ahalko da, udal ordenantza fiskaletan ezarritakoari jarraituz.

Lurzoru publikoa okupatzeko baimendutako epeak aldatu ahal izango dira Udalak antolatutako jarduera publikoak, obrak, turismoko jarduerak edo jaiak egiteko; aldaketak egin ahalko dira, halaber, beste interesdun batzuek, euren eskubideak erabiliz, administrazio honek baimendutako jarduerak egin behar dituztenean.

Sopelana, porque esta regulación está elaborada teniendo presente también el interés estratégico que la actividad comercial y de hostelería tiene para el municipio, como factor ineludible de generación de riqueza.

Pretende distribuir el espacio peatonal y público, adecuar la estética de las instalaciones mejorando la calidad general percibida por los vecinos y visitantes y conciliar y ponderar, en último término, los intereses y derechos en juego.

De esta manera, conjugando tipos de entornos (aceras de calles con tráfico, zonas peatonales, plazas, jardines, soportales...), tipos de terrazas (estables, móviles, con protección, cerramientos), tipos de suelo (público o privado) y, lo que es más importante, tipos de ciudadanos y de ciudadanas (sillas de bebés, movilidad de personas con discapacidad, etc.) resulta un abanico de posibilidades que se han intentado sistematizar.

**Capítulo I**

OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO DE APLICACIÓN Y EXCLUSIONES

***Artículo 1.—Objeto y Definición***

1.—La presente Ordenanza tiene por objeto establecer el régimen jurídico y técnico aplicable a la instalación y funcionamiento de las terrazas y veladores en los espacios públicos o privados de uso público al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Real Decreto 2187/1978, de 23 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística, Ley 20/1997, de 4 de diciembre, del País Vasco sobre promoción de la accesibilidad y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, etc.

2.—A los efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas el conjunto de mesas, sillas u otro mobiliario y de sus instalaciones fijas (pero fácilmente desmontables) o móviles tales como sombrillas, pescantes, toldos, cubiertas ancladas, protecciones laterales, alumbrado, dotaciones de calor, que ubicadas en espacios públicos o privados de acceso libre y uso público sirven de complemento temporal o continuo a un establecimiento legalizado de hostelería o asimilado.

***Artículo 2.—Naturaleza jurídica***

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero y requieren para su ejercicio licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la licencia, por lo que su otorgamiento es discrecional, sin perjuicio de que la resolución deba ser adoptada previa ponderación y armonización de los intereses públicos y privados concurrentes y respetando en todo caso las condiciones mínimas de la presente Ordenanza. Por ello, el silencio administrativo tendrá efectos desestimatorios, por lo que no cabrá la utilización del espacio sin la previa licencia habilitante.

Las licencias se entienden otorgadas en precario, tendrán siempre carácter provisional y se someterán a plazo, es decir, se mantendrán exclusivamente cuando perduren las circunstancias de todo orden que fueron objeto de consideración en su otorgamiento, y no aparezcan nuevas circunstancias que impidan su mantenimiento sin menoscabo del uso común o del interés general referido al concreto uso del espacio público afectado. Por lo tanto, la suspensión provisional o revocación definitiva de la licencia por razones de interés público no dará lugar a indemnización alguna, sin perjuicio de devolverse proporcionalmente las tasas que por la utilización del dominio público hubieran sido cobradas, de conformidad a lo prevenido por las ordenanzas fiscales municipales.

Los periodos de ocupación de suelo público que pudieran autorizarse podrán verse modificados con ocasión de la realización de actividades turísticas o festivas, realización de obras y/o actividades públicas organizadas por el Ayuntamiento; asimismo, podrán verse modificadas si resultase precisa la realización de actividades por otros interesados correspondientes a derechos que ostenten cuya autorización corresponda a esta administración.

cve: BAO-BOB-2014a050

### *3. artikulua.—Eremua*

Ordenantza hau aplikatu behar da erabilera publikoko espazio guztietan (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak etab.), titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak izan. Egitatezko egoerak eta indarra duen planeamenduko determinazioen aplikazioak zehaztuko dute leku bat erabilera publikokoa den ala ez.

### *4. artikulua.—Aplikazio eremutik kanpo uzten diren instalazioak*

Ez zaie araudi hau aplikatuko, 1. artikuluko definizioan egokitu arren, honako instalazio hauei:

a) Jabari publikoko ondasunetan edo ondareko ondasunetan kokatuta egoteagatik Udalaren kontzesio administratiboaren babesean egiten den jardueraren baten osagarri direnak.

b) Udal agintaritza eskudunak ezarritako egutegi eta formen barruan antolatzen diren aldi baterako jarduerak (herriko jaien ekitaldiak), eta udal agintaritzak aurretik baimendutako kultur eta gizarte ekitaldiak. Instalazio horiek Sanpedroetan edo Karmenetan jartzen direnean, jaiei buruzko ordenantzan ezarritako arauak bete beharko dira. Udalerriko jaietan ostalaritzako terraza bat jartzeko baimena edo lizentzia emateak berekin ekarriko du, arau orokor gisa, titulu honen arabera baimenduta egon daitekeen terrazarena etetea aldi baterako, bestea baimentzen den aldirako, hain zuzen ere, espazio publikoa gehiegi ez erabiltzearren. Udalaren erabakiak, betiere, kontuan hartuko ditu ukitutako espazioaren baldintza fisikoak eta bi terrazak batera baimentzeak ekarriko lituzkeen mota guztietako ondorioak.

## II. kapitulua

BALDINTZA OROKORRAK

### *5. artikulua.—Baimendu daitezkeen establezimenduak*

1.—Behar bezala legeztatutako ostalaritzako establezimenduei eta parekoei bakarrik emango zaie terraza jartzeko lizentzia, eta honako establezimendu hauei ez zaie lizentziarik emango: Ikuskizun aretoak eta zinemak, dantzalekuak, joko aretoak eta billar aretoak, txokoak, gastronomia elkarteak eta antzekoak.

2.—Udal agintaritza eskudunak mahai hankabakarrak, terrazak eta elementu osagarriak jartzea debeka dezake, herritarren interesak hala eskatzen badu (trazatua, kokagunea, bide segurtasuna, herri lanak edo bestelako arrazoiak).

### *6. artikulua.—Muga orokorrak*

1.—Lizentziak, I. kapituluan azaldu den izaera juridikoa dutelako, aldi baterako eten ahal izango dira, Udalak sustatu edo baimendutako jaiak, kultur jarduerak, gizarte nahiz kirol jarduerak egiten direnean.

2.—Era berean, lizentziak eten egingo dira obra publikoak egiteko, edo enpresa zerbitzu-hornitzaileek nahiz partikularrek espazio publiko bera erabili behar dutenean obra pribatuak egiteko. Horrelakoetan lizentzia etenda egongo da obra egiteko baimendutako epean.

3.—Bermatu egin beharko da oinezkoek igarotzeko gutxienez 2 metroko zabalerako pasagune iraunkorra izango dutela fatxadaren eta terrazaren artean, oztoporik gabe. Debekaturik dago, halaber, instalazio horiek jartzea honako toki hauen ondoan edo aurrean: Oinezkoentzako pasabideak, ezinduentzako aparkalekuak, larrialdietarako irteerak, autobus geralekuak, taxien aparkalekuetako aurrealdea, Udalak baimendutako pasabideak, hondakinak biltzeko edukiontziak. Zerbitzu publikoek noiznahi erabili ahal izateko oztoporik gabe utzi beharko dira, halaber, ur harguneak, sute-ahoak, eta estolderiako eta gainerako zerbitzu publikoetako erregistroak eta kutxatilak.

4.—Inoiz ere ez da terrazak instalatzeko baimenik emango araudi sektorialak hori eragozten badu. Honezkero emanda egon daitezkeen lizentziak erabat deusezak izango dira.

### *Artículo 3.—Ámbito*

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público, sean de titularidad pública o privada. La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

### *Artículo 4.—Exclusiones*

Esta normativa no será aplicable a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo 1, se encuentren en algunos de los supuestos siguientes:

a) Cuando sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal, por estar enclavada en bienes de dominio público o patrimoniales.

b) Actividades temporales, ejercidas con motivo de actos festivos populares, dentro del calendario y formas establecidas por la Autoridad Municipal competente y actos culturales y sociales previamente autorizados por la Autoridad Municipal. Cuando tales instalaciones se realicen en el marco de las fiestas de San Pedro o El Carmen, quedarán sujetas a la normativa contenida en la Ordenanza de Fiestas. El otorgamiento de un permiso o licencia de terraza para hostelería con ocasión de fiestas del municipio conllevará, como norma general, la suspensión temporal, por el tiempo que se autorice aquella, de la que pudiera estar autorizada con arreglo al presente título, a fin de no sobreutilizar el espacio público. No obstante, la decisión municipal se adecuará a los requisitos físicos del espacio afectado y a las consecuencias de todo orden que se derivarían de la compatibilización de ambas terrazas.

## Capítulo II

CONDICIONES GENERALES

### *Artículo 5.—Establecimientos autorizables*

1.—Las licencias de terrazas sólo se concederán a los establecimientos de hostelería y asimilados debidamente legalizados, excepto a los siguientes establecimientos: Salas de espectáculos y cines, salas de fiestas, sala de juego y billares, txokos, sociedades gastronómicas y similares.

2.—La Autoridad Municipal competente podrá prohibir la instalación de veladores, terrazas, y sus elementos auxiliares, en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón de trazado, situación, seguridad viaria, obras públicas o cualesquiera otras circunstancias.

### *Artículo 6.—Limitaciones generales*

1.—Las licencias, de acuerdo con su naturaleza jurídica referida en el Capítulo I, podrán suspenderse temporalmente en el supuesto de celebración de actividades festivas, culturales, cívicas y deportivas promovidas o autorizadas por el Ayuntamiento.

2.—Igualmente se suspenderán con ocasión de la ejecución de obras públicas, o de las obras privadas realizadas tanto por empresas suministradoras de servicios como por particulares que requieran necesariamente de la utilización del mismo espacio público, por el tiempo de su ejecución que se halle autorizado.

3.—Se deberá garantizar un itinerario peatonal permanente de 2 metros mínimos de anchura respecto de la fachada libre de obstáculos, quedan asimismo prohibidas dichas instalaciones, junto o frente a pasos de peatones, plazas de aparcamiento para personas con discapacidad, salidas de emergencia, paradas de autobuses, cabecera de aparcamiento de taxis, vados autorizados por este Ayuntamiento, contenedores de recogida de los diferentes residuos, y asimismo deberán dejar libres para su inmediata utilización por parte de los servicios públicos correspondientes, las bocas de riego, los hidrantes, los registros y arquetas de alcantarillado y de los demás servicios públicos de forma que impidan su utilización inmediata por los servicios públicos.

4.—En ningún caso se autorizará la instalación de terrazas cuando la normativa sectorial correspondiente lo impida. Las licencias que pudieran haberse otorgado serán nulas de pleno de derecho.

cve: BAO-BOB-2014a050

### *7. artikulua.—Berariazko mugak*

Arau orokor gisa, ezin izango da terrazarik jarri pertsonen segurtasunaren, pertsonen mugikortasunaren eta irisgarritasunaren aldetik ezegokiak izan daitezkeen lekuetan, leku horien ezaugarri fisiko bereziak edo oinezkoen trafikoaren maila zein intentsitatea kontuan hartuta. Eskaera ebazterakoan bereziki kontuan hartu beharreko inguruabarrak izango dira oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa, baimendutako ibilgailuentzako igaroguneak, inguruetan egon daitezkeen mota guztietako hiri altzariak eta bestelako zerbitzuak, eraikin, establezimendu eta zerbitzu publikoetako sarrerak eta larrialdietako irteerak, eta horien elementu funtzionalak eta seinaleak ondo ikusteko oztopoak.

### *8. artikulua.—Instalaziorako baldintzak*

1.—Baimendutako instalazioan egin beharreko jarduerak ostalaritza jarduerak bere dituenak izango dira (edari eta janari zerbitzua).

2.—Baimendutako terrazetan, debekatuta dago honako hauek instalatzea:

a) Mota guztietako soinu iturriak (musika, girotzea eta abar), baita zuzeneko musika eta irudi-erreproduzigailuak ere, berariazko baimena denean izan ezik.

b) Ur hornidurako edota saneamenduko harguneak edo baimendu gabeko beste edozein hargune.

c) Edozein motatako produktuak saltzeko txanpon makinak, edariak edota janariak prestatzeko instalazio osagarriak, billarrak, futbol-mahaiak, jolas makinak, barbakoak eta antzeko instalazioak, berariazko baimena denean izan ezik.

d) Mota guztietako oholtzak, tauladak, terraza osoa edo zati bat altxatzen duten plataformak.

3.—Berariaz baimendutako instalazioak baino ezin izango dira egin, eta arreta berezia jarriko zaie haien neurriei eta haiek osatzen dituzten elementuei.

4.—Ezingo dira txorkoak okupatu, hau da, zuhaitz enborren behealdea babesteko perimetroak.

5.—Altzari guztiek gomazko elementuak edukiko dituzte, euskarri osoak estaliko dizkietenak, talka egitean edo arrastaka eramatean zaratarik ez ateratzeko kanpoaldean.

6.—Terrazako esparru akotatuan berogailuak edo bestelako kalefakzio elementuak jartzea eskatzen bada, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: Teknikari eskudunak izenpetutako txostena —instalatu beharreko elementuaren ezaugarriei buruz—, dagokion erakunde publikoak emandako homologazio egiaztagiria eta terraza erabili eta zaintzeko hartu diren segurtasun neurriak.

## III. kapitulua

BALDINTZA TEKNIKOAK

Jabari publikoaren okupazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

### *9. artikulua.—Ibilgailuek zirkulatzen duten kaleetako espaloietan terrazak instalatzeko baldintzak*

A.—Terrazaren gehieneko luzera eta espaloiaren gutxieneko zabalera.

1.—Ezin izango da terrazarik jarri 2,90 metrotik beherako zabalera duten espaloietan, ezta zirkulazio azkarreko eta galtzadaren babesik gabeko bideen ondoan ere.

2.—Arau orokor gisa, terrazaren luzera ez da establezimenduko fatxadaren luzera baino handiagoa izango, establezimenduaren mugakideek idatziz baimena eman ezean.

3.—Establezimendu bakoitzeko instalazioaren gehieneko luzera, eraikineko fatxada batean edo batzuetan zehar, ez da inoiz izango 12 metro baino gehiagokoa, alboetako babesak barne, babes horiek edonolakoak direla ere.

### *Artículo 7.—Limitaciones especificas*

De forma general no se permite la colocación de terrazas en aquellos espacios que, por particulares características físicas o por razón del nivel o intensidad del tránsito peatonal, puedan resultar inconvenientes desde el punto de vista de la seguridad de las personas, de su movilidad y accesibilidad. En particular, la afección al tránsito peatonal y rodado, a los pasos de vehículos autorizados o a cualquier clase de mobiliario urbano y otros servicios que se hallen instalados en la zona, a los accesos de los diferentes edificios, establecimientos y servicios públicos y sus respectivas salidas de emergencia, así como los perjuicios que para la visibilidad de los elementos funcionales y señalizadores de los mismos, serán circunstancias a tener en cuenta en la resolución de la solicitud.

### *Artículo 8.—Condiciones de la instalación*

1.—Las actividades a realizar en la instalación autorizada serán las propias de la actividad de hostelería (servicio de bebidas y comidas).

2.—Queda prohibido instalar en las terrazas autorizadas:

a) Todo tipo de fuentes acústicas (musical, ambiental, etc.), así como la música en vivo y reproductores de imagen salvo autorización expresa.

b) Acometidas de suministro de agua y/o saneamiento o cualquier otra no autorizada.

c) Máquinas expendedoras de cualquier clase de producto y las instalaciones auxiliares de preparación de bebidas y/o comidas, billares, futbolines, máquinas recreativas, barbacoas o instalaciones análogas, salvo autorización expresa citada.

d) Ningún tipo de estrados, tarimas, plataformas que eleven en parte o en la totalidad la superficie destinada a las terrazas.

3.—No podrán realizarse instalaciones distintas de las expresamente autorizadas, prestando especial atención a sus dimensiones y elementos que la componen.

4.—No podrán ocupar alcorques, es decir, el perímetro de protección de la parte baja del tronco de árboles.

5.—Todo mobiliario dispondrá de elementos de goma que recojan totalmente todos los apoyos para evitar ruidos por impacto y arrastre en el exterior.

6.—En el supuesto de que se solicite la instalación de estufas u otros elementos de calefacción en el recinto acotado de la terraza, deberá presentarse informe suscrito por técnico competente sobre las características del elemento a instalar, certificado de homologación por el organismo público correspondiente y medidas de seguridad que se adopten en su utilización y custodia.

## Capítulo III

CONDICIONES TÉCNICAS

La ocupación del dominio público habrá de cumplir las siguientes condiciones:

### *Artículo 9.—Condiciones de instalación en aceras de calles con circulación rodada*

A.—Desarrollo longitudinal máximo y anchura mínima de la acera.

1.—No podrán colocarse terrazas en aceras que tengan una anchura inferior a 2,90 m., ni junto a vías de circulación rápida sin protección de calzada.

2.—Con carácter general la longitud de la terraza a autorizar no excederá de la longitud de la fachada del establecimiento, salvo autorización por escrito de los colindantes de éste.

3.—El desarrollo máximo de la instalación de cada establecimiento, referido a una o varias fachadas del edificio, incluidas sus protecciones laterales, cualesquiera que sean, en ningún caso superará los 12 metros de longitud.

cve: BAO-BOB-2014a050

4.—Ostalaritzako terrazaren mugakide den lokalaren (edo lokalen) baimena eskuratu dela frogatzeko, jardueraren titularrak sinatutako agiria aurkeztuko da. Titularrak, bere burua identifikatzeko, izena eta bi deiturak edo sozietatearen izena, NANa edo IFK, helbidea eta jarduera irekitzeko lizentziaren datuak jarriko ditu, eta adieraziko du baimena ematen duela beren-beregi eta baldintzarik gabe, terraza ezarri nahi den denboraldi osorako, eta berariaz adieraziko du baimena ezeztaezina dela.

B.—Okupazioa.

1.—Terrazek eta mahaitxoek, oro har, okupazio baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Instalazioak beti bermatu beharko du oinezkoak igarotzeko gutxienez 2 metroko zabalerako pasagune iraunkorra egongo dela fatxadaren eta terrazaren artean, oztoporik gabe. Gutxieneko pasagune hori espaloiaren zabaleraren araberakoa izango da:

— Espaloiak 2,90 - 4 metro bitarteko zabalera badu, oinezkoentzako oztoporik gabeko pasagunea 2 metro zabal izango da. Terrazaren zabalera 60 - 170 cm bitartekoa izango da.

— Espaloiak 4,01 - 5 metro bitarteko zabalera badu, oinezkoentzako oztoporik gabeko pasagunea 2,50 metro zabal izango da. Terrazaren zabalera 120 - 220 cm bitartekoa izango da

— Espaloiak 5,01 - 6,30 metro bitarteko zabalera badu, oinezkoentzako oztoporik gabeko pasagunea 3,00 metro zabal izango da. Terrazaren zabalera 170 - 300 cm bitartekoa izango da.

— Espaloiaren zabalera 6,30 metrotik gorakoa bada, oinezkoentzako oztoporik gabeko pasagunea 3,50 metro zabal izango da. Terrazaren zabalera 250 cm - 4 m bitartekoa izango da

b) Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, oinezkoentzako oztoporik gabeko pasagune zabalagoa eskatu ahal izango da, eskumena duen udal zerbitzu teknikoak beharrezkotzat jotzen badu, oinezkoen trafikoaren intentsitatea kontuan hartuta.

2.—Terrazak espaloi ertzaren ondoan luzetara jarriko dira, arau orokor gisa, eta espaloi ertzetik 30 zentimetrora gutxienez ere, aparkatutako ibilgailuetan jendea sartu eta irten ahal izateko, salbu eta babes hesia dagoenean; horrelakoetan hesiaren barrualdeko proiekzio bertikaletik gutxienez 10 zentimetroko tartea egongo da. Ibilgailuak baterian aparkatzen badira, terrazatik espaloi ertzera gutxienez 60 zentimetroko tartea egongo da.

3.—Espaloian parterreak badaude edo hainbat ibilbide sortzen dituzten bestelako elementuak badaude, udal zerbitzu teknikoak erabakiko du zein den terraza jartzeko erarik egokiena, artikulu honetako 1. idatz-zatian oinezkoentzako pasagune iraunkorrei buruz xedatutakoaren arabera.

4.—Arkupeetan kontuan hartuko da aurreko idatz-zatian ezarritakoa, eta oinezkoentzako pasagune iraunkor bereizitzat joko dira arkupean dagoen pasagunea eta ondoko espaloian edo bestelako eremuan dagoena.

5.—Behar bezala argudiatutako inguruabarrengatik, salbuespenez, terraza edo mahaitxoak establezimenduaren fatxadaren ondoan jartzea komeni denean, horretarako baimena eman ahalko da, udal zerbitzu teknikoak proposatzen dituen diseinua eta baldintzak betetzen badira eta, halaber, oinezkoentzako pasaguneen zabalera errespetatzen bada, goian esandako espaloi-zabaleren arabera.

6.—Ildo berean, interes publikoa, segurtasuna, lurzoruaren konfigurazio espezifikoa eta abar direla eta, agintaritza eskudunak eskatu ahala baloratutako terrazen okupazioak alde batera utzi ahal izango du aurreko ataletan ezarritakoa, betiere behar bezala justifikatzen bada.

C.—Alboetako babesak.

1.—Instalazioak okupatzen duen lekuaren alboetan babesak jarri ahal izango dira, esparrua mugatuta egon dadin eta itsuek oztopoa igarri ahal dezaten. Babes horiek ez dute oinezkoentzako arriskurik sortuko, ezta bide publikoan kalte edo eragozpenik eragingo ere.

4.—La acreditación de la autorización del local o locales colindantes con la terraza de hostelería se realizará mediante documento suscrito por quien sea titular de la actividad, que se identificará con señalamiento de nombre y dos apellidos o razón social, dni o cif, domicilio y licencia de apertura de su actividad, e incluirá la manifestación del otorgamiento del permiso explicito, expreso y no condicionado, por toda la duración de la temporada en que pretenda instalarse la terraza, con la manifestación expresa de irrevocabilidad.

B.—Ocupación.

1.—Las terrazas y veladores se sujetarán, con carácter general, a las siguientes condiciones de ocupación:

a) La instalación deberá garantizar, en todo caso, un itinerario peatonal permanente de 2 metros mínimos de anchura respecto de la fachada, libre de obstáculos, itinerario mínimo que se modulará según los siguientes anchos de acera:

— De 2,90 m a 4 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 2 m. La anchura de terraza será desde 60 cm a 170 cm.

— De 4,01 m a 5 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 2,50 m. La anchura de terraza será desde 120 cm a 220 cm.

— De 5,01 m a 6,30 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 3,00 m. La anchura de terraza será desde 170 cm a 300 cm.

— Más de 6,30 m se mantendrá un itinerario peatonal libre de 3,50 m. La anchura de terraza será a partir de 250 cm y no más de 4 m.

b) No obstante lo establecido en el apartado anterior, el itinerario peatonal libre podrá ser ampliado a juicio razonado por el servicio técnico municipal competente cuando lo requiera la intensidad del tránsito de viandantes.

2.—Se dispondrán longitudinalmente junto al borde de la acera, con carácter general, y separadas de él un mínimo de 30 centímetros, para no entorpecer la entrada y salida de personas de los vehículos estacionados, salvo que exista valla de protección, en cuyo caso la separación será de al menos 10 centímetros de su proyección vertical interior. Cuando el estacionamiento de vehículos se realice en batería, la separación de la terraza respecto del borde de la acera será de un mínimo de 60 centímetros.

3.—En el caso de que en una acera existan parterres, u otros elementos por los que se crean varios itinerarios, será el servicio técnico municipal el que decidirá la opción más adecuada para resolver su disposición según lo dispuesto en el apartado 1 del presente artículo en relación a los itinerarios peatonales permanentes.

4.—En el caso de zonas soportales, se tendrá en cuenta el apartado anterior, considerando itinerarios peatonales permanentes diferenciados el del soportal y el de la acera colindante u otros espacios.

5.—Si, por circunstancias excepcionales debidamente argumentadas, fuera conveniente la ubicación de la terraza o velador junto a la fachada del establecimiento, se podrá autorizar de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga el servicio técnico municipal, respetándose igualmente la anchura de los itinerarios peatonales en función de los anchos de acera antes señalados.

6.—En el mismo sentido por razones de interes público, seguridad, configuración específica del terreno, etc., valoradas discrecionalmente por la autoridad competente la ocupación podrá no ajustarse a lo señalado en los apartados anterores simepre que se justificque debidamente.

C.—Protecciones laterales.

1.—La superficie ocupada por la instalación podrá quedar delimitada por protecciones laterales que acoten el recinto y permitan identificar el obstáculo a personas invidentes, y no supondrán riesgo para quienes transita, ni daño o alteración en la vía pública.

cve: BAO-BOB-2014a050

2.—Alboetako babes horiek mugikorrak izango dira, gardenak edo opakuak, baina betiere inguruko baldintzetarako egokiak. Udal zerbitzu teknikoaren oniritzia jaso beharko dute.

3.—Ez dute instalazioaren zabalera baimendua gaindituko. Gutxienez 1 metroko altuera izango dute eta gehienez 1,70 metrokoa. Dena dela, espaloiaren sestratik gutxienez 5 cm ra jarri beharko da.

4.—Terrazak hartzen duen lekuaren alboetan eta atzealdean jarriko dira, eta betiere libre utziko da terrazaren alde bat, ostalaritzako jardueraren lokaletik hurbilen dagoena.

5.—Alboetako babesak nahitaezkoak izango dira terraza fatxada-lerro baten ondoan kokatzen denean (ikus 9.B.5 artikulua) eta lizentziak hala zehazten duen kasuetan. Horrelakoetan, alboetako babesak oinezkoen norabidearekiko zeharka jarriko dira eta egunero desmuntatuko dira.

D.—Estalki iraunkorrak.

Estalkiak jarri ahal izango dira, baina ondoko hauetan ez:

1.—Jabetza pribatukoak eta erabilera publikokoak diren lekuetan ez da estalki iraunkordun terrazarik jartzeko lizentziarik emango, horrek handitu egingo lituzkeelako lurzatiaren eraikigarritasuna eta irabazizko aprobetxamendua.

2.—Ataripe edo arkupeetan ere ez da horrelako terrazarik instalatzeko lizentziarik emango.

3.—Kapitulu honetako aurreko artikuluetan adierazitako moduan mugatutako espazioa estaltzeko behin-behineko estalkiak jarri ahalko dira, desmuntatzen errazak, espaloian ainguratuak, eta horretaz gain honako baldintza hauek beteko dituztenak:

a) Arau orokor gisa, luzetarako 5 metroko tarte bakoitzeko, bi zutoin edo euskarri edukiko dituzte (gutxi gorabeherako tartea da, modeloaren araberakoa).
b) Edozein zutoinetik espaloiaren kanpoko ertzera gutxienez 30 zentimetroko tartea egongo da, salbu eta babes baranda dagoenean; kasu horretan tartea txikiagoa izan daiteke, 10 zentimetro zutoinetik barandara.
c) Estalkiaren elementuren bat kanpora irteten bada, elementu irtenaren beheko ertzak 220 zentimetrotik gorako altuera izan beharko du.
d) Instalazioaren alboetako babesak goitik irekiak izango dira, eta inoiz ez dute 1,70 metroko altuera gaindituko, eta ezin izango zaie leiho lerragarririk jarri. Artikulu honetako C idatz-zatian alboetako babesei buruz xedatutakoa beteko dute, eta, arau orokor gisa, gardenak izango dira.

4.—Estalkiek, gainera, diseinu irekia izango dute, ikuspegien iragazkortasuna lehenetsiko duena, hiria ikustea eragotzi gabe eta edukiontzi trinkoaren itxura hartu gabe. Ahal dela, egiturazko elementuak altzairuzkoak izango dira (altzairu herdoilgaitza, altzairu urtua), eta, pintatzen badira, oxidon motako pintura erabiliko da, edo inguruetako hiri altzarietarako esleitutako pintura mota. Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira instalazioaren proiektua eta eragina ebaluatzeko behar diren infografiak.

5.—Estalki iraunkorrak ainguratu gabe instalatu ahal izango dira, behar bezala bermatzen bada egonkorrak izango direla eta ez direla mugituko.

6.—Arau orokor gisa, baimendutako terrazaren luzerak ez du gaindituko establezimenduko fatxadaren luzera.

7.—Terraza estaltzeko mugak. Udal organo eskudunak terraza estaltzeko baimena ukatu ahal izango du honako kasu hauetako edozeinetan:

a) Bide segurtasunari kalte egiten zaionean (ondo ez ikustea, gidariek arreta galtzea etab.) edo oinezkoen trafikoari traba nabarmena egiten zaionean.
b) Inguruko eraikin eta lokaletako segurtasuna kolokan jar daitekeenean (ebakuazioa eta abar).
c) Estalkia formaren aldetik ezegokia denean edo inguruarekin bat ez datorrenean, edo hiri paisaiaren irakurketa egokia eragozten duenean.

2.—Estas protecciones laterales, deberán ser móviles, transparentes u opacas, pero siempre adecuadas a las condiciones del entorno. Su idoneidad quedará sujeta al visto bueno del servicio técnico municipal.

3.—No podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente, y su altura no será inferior a 1 metro, ni superior a 1,70 metros. En todo caso, deberán separarse como mínimo 5 cm de la rasante de la acera.

4.—Se instalarán en los laterales y la parte posterior del espacio ocupado por la terraza, dejando siempre libre el frente de la terraza más próximo al local que albergue la actividad hostelera.

5.—Serán obligatorias cuando las terrazas se dispongan junto a la línea de fachada (ver artículo 9.B.5) y en los casos que así se determine en la licencia. En este caso las protecciones laterales se dispondrán en sentido transversal a la circulación peatonal desmontándose diariamente.

D.—Cubiertas estables.

La instalación de cubiertas será posible con las excepciones siguientes:

1.—No se concederán licencias para la instalación de terrazas con cubierta estable en espacios de propiedad privada y uso público por implicar ello un aumento de edificabilidad y del aprovechamiento lucrativo correspondiente a la parcela.

2.—Tampoco se concederán cuando su instalación se pretenda en porches o soportales.

3.—El espacio delimitado conforme a los artículos anteriores del presente Capítulo, podrá cubrirse con elementos de carácter provisional, fácilmente desmontables, y ancladas sobre la acera, que reúnan además los requisitos siguientes:

a) Como norma general poseerán dos pies derechos o soportes por cada 5 metros de desarrollo longitudinal (de manera aproximada dependiendo de los modelos);
b) La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera, no será inferior a 30 centímetros, salvo cuando exista barandilla de protección, en cuyo caso podrá reducirse a 10 centímetros de ésta;
c) El borde inferior de cualquier elemento saliente en la instalación de la cubrición, deberá superar la altura de 220 centímetros.
d) Las protecciones laterales de la instalación serán abiertas en su parte alta y presentarán una altura que en ningún caso superará 1,70 metros, sin que puedan colocarse ventanas correderas. Atenderán a lo dispuesto en apartado C del presente artículo sobre protecciones laterales y serán como norma general transparentes.

4.—Las cubiertas presentarán además un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad ni operen a modo de contenedor compacto. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición...), y en el supuesto de acabado en pintura éste será del tipo oxidón o del asignado para el mobiliario urbano existente en las proximidades. Para ello la solicitud deberá incluir el correspondiente proyecto de instalación y las infografías necesarias para evaluar el impacto.

5.—Las cubiertas estables podrán ser instaladas sin anclajes cuando se garantice de forma adecuada su estabilidad e inmovilidad.

6.—Con carácter general la longitud de la terraza a autorizar no excederá de la longitud de la fachada del establecimiento.

7.—Limitaciones a la cubrición. El órgano municipal competente podrá denegar la solicitud de cubierta en cualquiera de los supuestos siguientes:

a) Cuando supongan algún perjuicio para la seguridad viaria (disminución de la visibilidad, o distracción para quienes conducen, etc.) o dificulte sensiblemente el tráfico de peatones;
b) Cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales próximos, (evacuación, etc.).
c) Cuando resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

cve: BAO-BOB-2014a050

E.—Terraza estaltzeko instalazioaren proiektua.

1.—Estalki iraunkorra jarri nahi denean, interesdunak proiektu teknikoa aurkeztu beharko du, gutxienez atal hauek izango dituena:

a) Lokalaren kokapen planoa, 1:500 eskalan egina (kartografia ofiziala oinarritzat hartuta), bertan honako hauek zehaztuta: Instalazioak harturiko azalera, fatxadaren luzera, ondoriozko pasabideen zabalera, litezkeen oztopo finkoak (trafiko seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, hiriko altzariak...) eta eragin litezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua, gasa...).

b) Xehetasun planoa, 1:50 eskalan. Bertan agertuko da instalazioak ukitzen duen bide publikoaren zatia, eta xehetasunez agertuko da nola kokatuko diren mahaiak eta aulkiak, alboetako babesak, jardinerak eta eguzkitakoak (horien proiekzio horizontala egingo da).

c) Aurreko letran aipatutako planoaren barruan, xehetasunez, 1:20 eskalan, alboetako babesak eta estalki iraunkorra irudikatu beharko dira, oinplanoan, altxaeran eta sekzioan.

2.—Honako hauek ere agertuko dira proiektuan: Estalkiaren forma eta neurriak, materialak, materialen portaera suarekiko (gutxienez M-2 mailakoa), sekzioak, ainguraketak, haizearekiko erresistentzia (jasan dezakeen gehieneko abiadura) eta abar. Teknikari eskudun batek sinatu beharko du proiektua, eta beraren titulazioa eta elkargo ofizialean duen zenbakia jarri beharko dira. Muntaketaren ziurtagiria eta estalkia eraikitzeko edo erosi eta muntatzeko aurrekontua ere erantsiko dira.

3.—Estalki iraunkorraren proiektua, arau orokor gisa, ostalaritzako establezimenduko fatxadaren luzerarako bakarrik baimenduko da, eta gutxienez oinplanoko 10 m²-ko azalera hartu beharko du proiektuak. Hala ere, azalera hori murriztu ahal izango da baldin eta Udalaren Zerbitzu Teknikoaren ustez inguruko baldintzak aldekoak badira.

4.—Estalki iraunkorra jarri nahi duten ostalaritzako establezimenduek aldez aurretik eskatu ahalko diote Udalari terraza estaltzeko euren proiektuari buruzko iritzia azaltzeko, eta horretarako instalazioa deskribatzen duen krokisa emango diote Udalari. Bertan agertu beharko dira okupazioaren neurriak, oinplanoa eta altxaera, ukitutako espazio publikoarekiko, zerbitzuekiko eta inguruabarrekiko erlazioa, eta egin nahi den instalazioa deskribatzeko infografia edo argazki muntaketa. Udalak bere iritzia azalduko dio titular bakoitzari, behin betiko proiektua egiterakoan kontuan har ditzan Udalaren oharrak eta, horrela, alferrikako lanak eta gastuak saihestu ditzan.

F.—Argiztapena.

1.—Lokalean edo bide publikoan dauden argiekin argiztatuko da terraza.

2.—Estalki iraunkorra duten terrazetan, salbuespenez argi osagarriak jartzen badira, berariazko araudia bete beharko da. Espedientea tramitatu beharko da, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu ondoren, eta obra-zuzendaritza egokia egongo da.

3.—Argi horiek instalatzen direnean, indarra duten segurtasun neurriak betetzeaz gainera, fidantza jarri beharko da, bermatuta egon dadin, behar izanez gero, egindako obra kendu egingo dela eta ukitutako elementu publikoak berriro jarri edo lehengoratu egingo direla.

4.—Jarduera amaitzen denean, ukitutako elementu publikoak lehengoratu egin beharko dira.

***10. artikulua.—Instalazioaren baldintzak oinezkoentzako eremuetan***

1.—Instalazio bakoitza gehienez ere 12 metro luze izango da, fatxada batean edo gehiagotan zehar.

2.—Terraza eraikineko fatxadaren ondoan luzetara jarri nahi bada eta proiektatutako instalazioaren luzerak interesdunaren establezimenduko fatxadaren luzera gainditzen badu, lokal eta jabe muga-

E.—Proyectos de la instalación para la cubrición.

1.—En caso de preverse una cubierta estable, la documentación a presentar por el interesado incorporará un proyecto técnico que incluirá como mínimo los siguientes apartados:

a) Plano de emplazamiento del local a escala 1:500 (sobre base de la cartografía oficial), con detalle de la superficie ocupada por la instalación, e indicación de la longitud de fachada y del ancho de los pasos libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier obstáculo fijo (señales de tráfico, árboles, bancos, mobiliario urbano, etc.), y de posibles afecciones a servicios municipales (agua, saneamiento, gas...).

b) Plano de detalle, a escala 1:50, en que se recoja el tramo de vía pública afectado por la instalación, con detalle de la distribución de mesas y sillas, protecciones laterales, jardineras, parasoles (señalando su proyección horizontal).

c) El plano a que se refiere el apartado anterior incluirá detalle, a escala 1:20, de la protección lateral y cubierta estable, en planta, alzado y sección.

2.—Dicho proyecto indicará también su forma y dimensiones, materiales que la componen, con indicación de su grado de comportamiento al fuego (como mínimo M-2), secciones, anclajes, señalamiento de resistencia al viento (indicando velocidad máxima que puedan resistir), etc. Además deberá venir firmado por persona técnica competente, señalando su titulación y número de colegiado del Colegio Oficial correspondiente, acompañado por un certificado del montaje y con el presupuesto de su construcción o adquisición y montaje.

3.—El proyecto de cubrición estable sólo se autorizará, como norma general, por idéntica longitud a la fachada del establecimiento de hostelería al que da servicio, y deberán proyectarse con una superficie mínima de 10 m² de planta, pudiéndose reducir siempre que las condiciones del entorno sean favorables a criterio del servicio técnico municipal.

4.—Los establecimientos hosteleros interesados en instalar una cubierta estable podrán solicitar anticipadamente la opinión municipal al respecto de su concreto proyecto de cubierta de terraza, y para ello facilitarán el correspondiente croquis descriptivo de la instalación, con indicación de las medidas de la ocupación, planta y alzado, y su relación con el concreto espacio público afectado, y sus servicios y circunstancias, y la correspondiente infografía o montaje fotográfico descriptiva de la instalación pretendida. El parecer municipal se trasladará personalmente a cada titular, a fin de que confeccione el proyecto definitivo de acuerdo con las indicaciones municipales, evitando así trabajos y gastos innecesarios.

F.—Iluminación.

1.—La iluminación de la terraza será con la que cuente el local o vía pública en que se instale.

2.—La iluminación complementaria para terrazas con cubierta estable que excepcionalmente precisara implantar, deberá ajustarse a la normativa específica, y será objeto de la tramitación del oportuno expediente, previa presentación de proyecto técnico firmado por técnico competente y bajo la dirección de obra correspondiente.

3.—La instalación de dicha iluminación, además de dar cumplimiento a las medidas de seguridad vigentes, exigirá el depósito de una fianza para responder, en su caso, de los costos necesarios para la eliminación de la obra realizada y la reposición de los elementos públicos afectados a su estado originario.

4.—Cuando cese la actividad, los elementos públicos afectados deberán quedar en sus condiciones originarias.

***Artículo 10.—Condiciones de instalación en áreas peatonales***

1.—El desarrollo longitudinal máximo de cada instalación no superará en ningún caso los 12 metros de longitud, referido a una o varias fachadas.

2.—Cuando el desarrollo longitudinal de las terrazas discurran junto a las fachadas de los edificios y la longitud de la instalación proyectada rebasa la propia de la fachada del establecimiento inte-

cve: BAO-BOB-2014a050

kideen baimena lortu beharko da, 9.A.4 artikuluan adierazitako moduan. Aurrez aurre dauden ostalaritzako establezimenduek terraza bana jarri nahi badute bidearen ardatzean zehar, euren artean banatuko dute terrazak instalatzeko zabalera erabilgarria, eta bermatu egin beharko dute fatxadaren eta mahaien artean gutxienez 2 metroko pasagune libre bana egongo dela oinezkoentzat.

3.—Oinezkoentzako kaleek gutxienez 5 metroko zabalera eduki beharko dute bertan terrazak eta mahaitxoak jarri ahal izateko. Gainera, oztoporik gabeko pasagune bat utzi beharko da, gutxienez 3 metro zabal, oinezkoak, babes zibileko ibilgailuak, anbulantziak, garbiketa zerbitzuak eta abarrekoak igaro ahal izateko. Bidearen zabaleraren %40 okupatu ahalko da, gehienez.

4.—Oinezkoentzako kaleak 10 metroko edo gehiagoko zabalera badu, bermatu egin beharko da oinezkoentzat gutxienez ere 4 metroko zabalerako pasagune iraunkorra egongo dela, inolako oztoporik gabekoa, fatxada-lerro bakoitzaren ondoan, edo/eta horrelako pasagune bat egongo dela erdian, hiri altzarien baldintzen arabera. Zabalera handiagoa eskatu ahal izango da udal zerbitzu teknikoak egokitzat jotzen badu, kalearen zabalera eta oinezkoen trafikoaren intentsitatea kontuan hartuta.

5.—Instalazioak alboetatik mugatu eta babestu ahal izango dira. Mugaketa eta babes horiek nahitaezkoak izango dira terraza fatxadaren ondoan jartzen denean, 9.C artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Alboetako babesak egunero kendu beharko dira.

6.—Lurrean ainguratutako edo ainguratu gabeko elementu iraunkorrekin estali ahalko dira, era guztietako inguruabarrek horretarako aukera ematen dutenean, udal teknikariak berariaz egin beharreko txostenaren arabera. Bestela, eguzkitako arruntak edo antzeko elementu mugikorrak erabili ahalko dira. Estalki guztiek, mugikorrak nahiz ainguratuak izan, gutxienez 3 metroko pasabide librea utziko dute, eta gutxienez 220 zentimetroko altuera izango dute, lurretik edozein elementu irtenen beheko ertzeraino neurtuta.

7.—Oinezkoentzako eremuen, bestelako espazio libreen edo plazen ondoan dauden arkupeetan, horietako bakoitzean, oinezkoentzako pasagune berezitu bat utzi beharko da, 9.B.4 artikuluan adierazitako baldintzetan. Eta Udalaren Zerbitzu Teknikoak erabakiko du zein den kokapen egokiena.

### *11. artikulua.—Plaza eta eremu libreetan eta hondartzetan bete beharreko baldintzak*

1.—Leku horietan terrazak eta mahaitxoak jartzeko lizentzietarako eskaerak udal zerbitzu teknikoak ebatziko ditu, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera, eta honako muga orokor hauek kontuan hartuta:

a) Instalazioak ez du inoiz gaindituko, jarraian, 12 metroko luzera;

b) Fatxada-lerro bakoitzean gutxienez 4 metroko zabalerako pasagune bat bermatuko da oinezkoentzat, oztoporik gabekoa, edo/eta pasagune bat utziko da erdian, lehendik dauden hiri altzarien baldintzen arabera;

c) Lokal, atari eta abarretarako sarbideak beti libre egongo direla bermatuko da; eta.

d) Ez da onartuko estalki iraunkorrik jartzea, lurrean ainguratuta nahiz ainguratu gabe, ezta manpara finkorik instalatzea ere.

2.—Gehieneko muga horiez gainera, proiektatutako instalazioak jarduera nagusiaren lokaleko fatxadaren luzera gainditzen badu, frogatu egin beharko da, ostalaritzako establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren ondoan luzetara jarri nahi bada instalazioa, alboetako lokaletako titularrak ados daudela, 9.A.4 artikuluan adierazitako moduan.

3.—Onartuko da inguruko jardueretako terrazak instalatzea jardueratik 20 metroko distantziara, gehienez, era guztietako inguruabarrek horretarako aukera ematen badute, udal teknikariak berariaz egin beharreko txostenaren arabera, salbu eta segurtasun arrazoiengatik terrazak ezartzea komeni ez denean.

resado deberá contarse con el permiso de los locales y propiedades colindantes, de igual manera a la señalada en el artículo 9.A.4. Cuando este desarrollo longitudinal discurra por el eje de la vía y se hallen establecimientos hosteleros enfrentados, se repartirán la anchura útil para la instalación de terrazas, debiéndose garantizar los 2 metros mínimos de paso peatonal libre de obstáculos entre la fachada y las mesas.

3.—Sólo se admitirán terrazas y veladores en una calle peatonal de 5 metros de ancho mínimo, y estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos y permitan el paso de vehículos de protección civil, ambulancia, limpieza, etc., con una anchura mínima de 3 metros. La ocupación máxima del ancho de vía no superará el 40% de la misma.

4.—En las calles peatonales de anchura igual o superior a 10 metros se garantizará un itinerario peatonal permanente, libre de cualquier obstáculo, con ancho no inferior a 4 metros, en cada alineación de fachada y/o uno central, según las condiciones del mobiliario urbano. Esta anchura podrá ser ampliada a juicio del servicio técnico municipal, en función del ancho de la calle y de la intensidad del tráfico de viandantes.

5.—Las instalaciones se podrán acotar y proteger lateralmente, siendo esta acotación y protección obligatoria cuando su trazado discurra junto a la fachada, según lo previsto en los artículos 9.C. Las protecciones laterales deben retirarse diariamente.

6.—Se permitirá su cubrición con elementos estables, anclados o no al suelo, cuando las circunstancias de todo orden así lo permitan, según informe técnico municipal al respecto, pudiendo, en otro caso, utilizarse sombrillas de tipo convencional u otros elementos móviles similares. Toda cubierta, móvil o anclada, no supondrá, en ningún caso, reducción del paso libre mínimo de 3 metros, y presentarán una altura mínima de 220 centímetros respecto del suelo en el borde inferior de cualquier elemento saliente.

7.—En el caso de zonas soportales junto áreas peatonales u otros espacios libres y plazas, en cada uno de éstos se considerará un itinerario peatonal permanente diferenciado, en las condiciones expresadas en el art. 9.B.4. Y será el Servicio Técnico Municipal el que decidirá la opción más adecuada para resolver su disposición.

### *Artículo 11.—Condiciones en plazas y espacios libres y zona de playas*

1.—Las solicitudes de licencia para la instalación de terrazas y veladores en estos espacios, se resolverán por el servicio técnico municipal según las peculiaridades de cada caso concreto, y con arreglo a las siguientes limitaciones generales:

a) La instalación en ningún caso podrá rebasar los 12 metros de longitud ininterrumpida;

b) Se garantizará un itinerario peatonal permanente libre de obstáculos, con anchura mínima de 4 metros en cada alineación de fachada, y/o uno central según las condiciones del mobiliario urbano existente;

c) Quedará asegurada la accesibilidad permanente a locales, portales etc; y.

d) No se permitirá su cubrición con elementos estables, anclados o no al suelo, ni la instalación de mamparas fijas.

2.—Si, al margen de este tope máximo, la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, se deberá acreditar, cuando su desarrollo longitudinal tenga lugar junto a la fachada del edificio donde radique el establecimiento de hostelería, la conformidad de las personas titulares de los locales a los que pretenda dar frente de igual manera a la señalada en el artículo 9. A.4.

3.—Se permitirá la instalación de terrazas de actividades circundantes que se ubiquen a una distancia máxima de 20 metros de la actividad, cuando las circunstancias de todo orden así lo permitan, según informe técnico municipal al respecto, y salvo que por motivos de seguridad sea desaconsejable su implantación.

cve: BAO-BOB-2014a050

4.—Plazen edo espazio libreen ondoan dauden arkupeetan, horietako bakoitzean, oinezkoentzako pasagune berezitu bat utzi beharko da, 9.B.4 artikuluan adierazitako baldintzetan. Eta Udalaren Zerbitzu Teknikoak erabakiko du zein den kokapen egokiena. Arkupeetan, mahaiak, arau orokor gisa, zutabeen ondoan jarriko dira.

5.—Hirugarren ataleko kasuetan, Udalaren Zerbitzu Teknikoak erabakiko du nola banatu espazio publikoa, betiere interesatuen eskariekiko ekitate irizpideak erabiliz. Nolanahi ere, eskari berriak direnean, beharrezkoa balitz, hurrengo urtean aldatu ahal izango da okupatu beharreko azalera. Espazio erabilgarria txikiagoa bada, ekitatez banatuko da, establezimenduaren fatxadaren luzeraren arabera, betiere Udalaren Zerbitzu Teknikoaren irizpideei jarraiki. Gehienezko zabalera 4 m koa izango da, baina aldatu ahal izango da espazioaren neurria kontuan hartuta, eta betiere, Udalaren Zerbitzu Teknikoaren irizpideei jarraiki.

**V. kapitulua**

IRIZPIDE ESTETIKOAK

### *12. artikulua.—Irizpide orokorrak*

1.—Oro har, eta udalerri osorako, debekaturik dago publizitatea jartzea terraza osatzen duten elementuetan eta elementu lagungarrietan, ostalaritzako lokalaren beraren publizitatea izan ezik, hau da, lokalaren izena edo logoa izan ezik; izena edo logoa inprimatuta egon ahalko da terrazako altzarietan, eta ondoren adieraziko diren azalerak okupatu ahalko ditu, gehienez ere:

— Toldoetan eta bestelako estalkietan, gehienez ere 60 cm x 20 cm isurki bakoitzean.
— Eguzkitakoen isurkietan, aulkietan, mahaietan eta manparetan, 20 x 20 cm gehienez ere.

2.—Bai lehenengoz egiten diren eskaeretan, bai berritzeko eskaeretan, jarriko diren altzarien ezaugarriak azaldu beharko dira, eta altzari horiek udal zerbitzu teknikoen oniritzia jaso beharko dute. Erabili nahi diren aulki, mahai eta eguzkitako moten argazkiak eta instalatu nahi diren gainerako elementu osagarrien argazkiak erantsi beharko dira.

3.—Estalkiak ehunez edo antzeko materialez eginak izango dira, eta eusten dieten elementuak arinak eta erabat desmuntagarriak izango dira.

4.—Kalitatezko material plastikoak erabili beharko dira, oro har, alboetako babes, toldo, eguzkitako eta abarretan.

5.—Tonu neutroak (zuria, krema, metalizatua, granatea, beltza...) gomendatzen dira elementu guztietarako, edo bestela, kromatismoan, materialetan, diseinuan eta argiztapenean euren artean eta ingurunearekin ondo ematen duten beste tonu batzuk. Horretarako, interesdunak zalantza egiten badu material edo kolore jakin bat araudi honetarako egokia ote den, udal zerbitzu teknikoengana jo ahalko du zalantzak argitzeko, lizentzia eskatu aurretik.

### *13. artikulua.—Irizpide partikularrak*

1.—Oinezkoentzako eremuetan, plazetan, espazio libre berezietan eta hondartzetan, honelako instalazioetarako lizentzia daukaten titularrek ezin izango dute plastikozko altzaririk erabili, ez eta merkataritzako publizitatez edo babesleen publizitatez hornitutako altzaririk ere. Arau orokor gisa, zurezko, aluminiozko edo altzairu herdoilgaitzezko altzariak onartuko dira lehentasunez, eta material horiek beste batzuekin konbinatu ahalko dira (zur tratatua, biniloa etab.), betiere materialen kalitatea jaitsi gabe.

2.—Eguzkitako toldoak dira terrazetako elementu nagusiak eta gehien ikusten direnak. Aurreko puntuan ezarritakoa betetzeaz gainera, toldoek diseinu eta tratamendu kromatiko bateratuak izan beharko dituzte. Era berean, diseinatutako oina edukiko dute.

3.—Oinezkoentzako eremu, plaza, espazio libre berezi edo kale pribatu bakoitzean kokatutako ostalaritzako establezimenduek denentzako proposamen orokorra egingo dute, instalazioa batera aztertuta, eta harmoniaren eta estetikaren arloko baldintza berariazkoak betez, toldo eta eguzkitakoen diseinua eta kolorea zehaz-

4.—En el caso de zonas soportales junto a plazas o espacios libres, en cada uno de éstos se considerará un itinerario peatonal permanente diferenciado, en las condiciones expresadas en el art. 9.B.4. Y será el Servicio Técnico Municipal el que decidirá la opción más adecuada para resolver su disposición. En zonas de soportales las mesas se colocarán como norma general junto a los pilares.

5.—En los casos relativos al apartado 3, el Servicio Técnico Municipal resolverá sobre la distribución del espacio púbico, con criterios de equidad respecto de las solicitudes de interesados, pudiendo modificar —si fuera necesario— la superficie a ocupar con efecto al ejercicio siguiente en caso de nuevas solicitudes. En casos de que el espacio disponible sea reducido se repartirá equitativamente en función de la longitud de fachada del establecimiento a criterio del servicio técnico municipal. La anchura máxima será de 4 m que podrá modificarse teniendo en cuenta las condiciones del espacio igualmente a criterio del servicio técnico municipal.

**Capítulo IV**

CRITERIOS ESTETICOS

### *Artículo 12.—Criterios generales*

1.—En general y para todo el municipio se prohíbe la publicidad en cualquiera de los elementos que componen la terraza, así como en sus distintos elementos auxiliares, excepto la publicidad del propio local de hostelería, es decir, su nombre o su logo, que podrá figurar impresa en el diferente mobiliario de que se componga la terraza, con la superficies máximas de ocupación que a continuación se indican:

— En toldos y otras cubiertas, una ocupación máxima de 60 cm x 20 cm en cada una de las faldas de sus caras.
— En las faldas de sombrillas, en las sillas, mesas y mamparas, una ocupación máxima de 20 x 20 cm

2.—Tanto en las nuevas solicitudes como en las peticiones de renovación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, el cual deberá recibir el visto bueno de los servicios técnicos municipales, adjuntando fotografía del tipo de silla, mesa y sombrilla que pretenda utilizarse, así como de cuantos otros elementos auxiliares se quiera instalar.

3.—Las cubiertas de los veladores tienen que ser de materiales textiles o similares, soportados por elementos ligeros, totalmente desmontables.

4.—Deberán utilizarse materiales plásticos de calidad en general, en protecciones laterales, toldos, sombrillas, etc.

5.—Se recomiendan tonos neutros para los diferentes elementos (blancos, cremas, metalizados, granate, negro...) o bien otros tonos que armonicen entre sí, con el entorno en el cromatismo, los materiales, el diseño y la iluminación. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color, podrá dirigirse a los Servicios Técnicos Municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de licencia.

### *Artículo 13.—Criterios particulares*

1.—En las áreas peatonales, plazas, espacios libres singulares y zona de playas, ningún titular de licencia para este tipo de instalaciones podrá utilizar mobiliario de plástico, ni que esté decorado con publicidad comercial o de esponsorización, admitiéndose como norma general mobiliario predominantemente de madera, aluminio o acero inoxidable, pudiendo combinarse con otros materiales tales como la madera tratada, vinilo, etc., siempre que no signifique detrimento en la calidad de los materiales.

2.—Los toldos-sombrilla, que son los elementos preponderantes y de más influencia visual en las terrazas, además de cumplir lo señalado en el punto anterior, deberán tener un diseño y tratamiento cromático unitario. Así mismo, contarán con pie diseñado.

3.—En cada una de las áreas peatonales, plazas, espacios libres singulares y calles particulares se elaborará por parte de los establecimientos hosteleros allí radicados una propuesta global para todos ellos estudiando la instalación conjuntamente y con condiciones especificas de armonía y estética, con la finalidad de deter-

cve: BAO-BOB-2014a050

teko, baita mahai eta aulkienak ere. Behin udal zerbitzu teknikoak proposamena onartuta, proposamen hori aplikazio-oinarritzat hartuko da aurrerantzean. Proposamenik egin ezean, Udalak zehaztuko ditu irizpide horiek, eta berak erabakiko ditu baldintza teknikoak eta estetikoak.

### *14. artikulua.—Manparen eta loreontzien baldintzak*

1.—Terrazak loreontziekin mugatu ahalko dira. Loreontzien oinarriak egonkortasuna bermatzeko behar bezain egonkorrak eta sendoak izango dira. Manparen eta loreontzien okupazioaren gehieneko zabalera 80 cm izango da oinaldean.

2.—Diseinu zainduko loreontziak onartuko dira, material egokiez eginak (zura, metala etab.), haize-babes moduan edo manparei eusteko elementu moduan erabilita.

3.—Elementu erdi gardenez egindako manparek, berriz, eurak ondo ikusteko moduko elementuak eduki beharko dituzte.

4.—Ez da alboetako hesiak jarri beharrik izango baldin eta instalazioaren alboetan funtzio hori behar bezala betetzen duten hiri altzariak badaude, hala nola jardinerak eta horrelakoak, aurreko idatz-zatietan azaldutako baldintzak betetzen dituztenak.

### *15. artikulua.—Eguzkitakoen baldintzak*

Bide publikoan instalatutako terrazetan, arau orokor gisa, erraz desmuntatzen diren eguzkitakoak bakarrik baimenduko dira. Gehienez 4 metroko diametroa izango dute, edo azalera baliokidea. Haien oinarriak behar adinako pisua izango du erabiltzaile eta oinezkoentzako arriskurik ez sortzeko, eta ez du zoladura hondatuko. Ez da onartuko publizitatez hornitutako toldo edo eguzkitakorik, establezimenduaren publizitatea dutenak izan ezik, eta publizitate horren estetika zainduko da, koloreei eta tamainari dagokienez.

### *16. artikulua.—Estalki iraunkorra duten terrazen baldintzak eta tipologia*

1.—Edonoiz eta, bereziki, desmuntatuta daudenean ikuspegien iragazkortasuna ahalbidetzen duten sistemak erabiliko dira. Horretarako gomendatzen da hormatik irteten diren eguzkitakoak edo luzetarako toldoekiko portikoa erabiltzea. Lehenengo aukera da egokiena adierazitako emaitzak lortzeko.

2.—Bide publikoan edo zoladuraren azpiko iragazgaizte sisteman kalteak eragiten dituen edozein mekanismo instalatzen bada, lizentziaren titularra izango da kalteen erantzule.

3.—Lokalak toldoak baditu estalki iraunkorren pareko fatxadetan, ezin izango dira biak aldi berean zabaldu.

## V. kapitulua

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### *17. artikulua*

1.—Titular baimendunak eskubidea izango du jarduerak egiteko, irekitzeko lizentzian ezarritako moduan eta ordenantza honek eta gainerako lege-manu aplikagarriek agintzen dutena betez.

2.—Erabiltzaileek eskuragarri izango dituzte terraza zerbitzuaren prezio zerrendak. Eta Udalaren ikuskapen zerbitzuak ondoko hauek izan beharko ditu eskuragarri: Zerrendak, jarduera egiteko baimena ematen duen agiria, instalazioaren krokisa, azalera, altzariak, instalazio osagarria eta baimendutako denboraldia.

### *18. artikulua.—Ordutegia eta funtzionamendu arauak*

1.—Terrazak muntatzeko ordutegia 08:00etan hasiko da. Funtzionamendu ordutegia 08:30etan hasiko da eta 23:00etan amaituko. Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan, terrazak ixteko ordua ordubete beranduago izango da. Ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean ere, terrazak ixteko ordua ordubete beranduago izango da. Azkenik, ostalaritzako terraza guztiak ordubete beranduago itxi ahalko

minar el diseño y color de toldos y, sombrillas, así como de las mesas y sillas que, una vez aprobada por el servicio técnico municipal, servirá de base de aplicación en lo sucesivo. De no formularse dicha propuesta será el Ayuntamiento el que determine tales criterios y decidirá sobre las condiciones técnicas y estéticas.

### *Artículo 14. Condiciones de Mamparas y jardineras*

1.—Las terrazas se podrán delimitar a base de maceteros con plantas con base lo suficientemente estable y consistente para garantizar su estabilidad. El ancho máximo de ocupación de mamparas y jardineras será de 80 cm en su base.

2.—Se admitirán jardineras de diseños cuidados y materiales adecuados, madera, metálicas, etc., empleadas como barreras cortavientos o elementos sustentadores de las mamparas.

3.—Las mamparas construidas a base de elementos traslucidos deberán disponer de elementos que identifiquen visualmente la existencia de la misma.

4.—Podrá dispensarse de la acotación lateral en caso de que la instalación se sitúe entre elementos de mobiliario urbano que realicen convenientemente esta función, tales como jardineras, etc., que cumplan las condiciones de los apartados anteriores.

### *Artículo 15.—Condiciones de Sombrillas*

Con carácter general en las terrazas instaladas en la vía pública sólo se autorizará la colocación de sombrillas fácilmente desmontables que tengan como máximo un diámetro de 4 metros o superficie equivalente, y sujetas mediante una base de suficiente peso de manera que no suponga peligro para los usuarios y viandantes y que no produzcan ningún deterioro en el pavimento. No se admitirán toldos y sombrillas con publicidad, excepto la del establecimiento al que pertenezcan, si bien cuidando la estética en cuanto a colores y tamaño de la misma.

### *Artículo 16.—Condiciones y Tipología de terraza con cubierta estable*

1.—Se utilizarán preferentemente sistemas que favorezcan la permeabilidad de vistas en general y en particular cuando se encuentren desmontados, para ello se recomienda la utilización de sombrillones empotrados o pórtico con toldos corridos, siendo la primera de ellas la más adecuada a los efectos expresados.

2.—En caso de instalación de cualquier mecanismo que ocasiones desperfectos en la vía pública o en la impermeabilización bajo solados, serán responsables de los desperfectos ocasionados los titulares de la licencia.

3.—En el caso de que el local cuente con toldos en fachadas coincidentes con cubiertas estables, no podrán desplegarse ambos simultáneamente.

## Capítulo V

DERECHOS Y OBLIGACIONES

### *Artículo 17*

1.—El titular autorizado tendrá derecho a ejercer las actividades en los términos de la respectiva licencia de apertura y con sujeción a las prescripciones de esta ordenanza y demás preceptos legales aplicables.

2.—Las listas de precios del servicio de terraza deberán estar a disposición de los usuario. Y tanto las listas, como el título habilitante para el ejercicio de la actividad, el croquis de la instalación, superficie, mobiliario e instalación complementaria, así como la temporada autorizada, deberán estar a disposición del servicio de inspección municipal.

### *Artículo 18.—Horario y normas de funcionamiento*

1.—El horario de montaje de las terrazas se iniciará a las 8:00 horas, el de su funcionamiento a las 8:30 horas, y concluirá a las 23:00 horas. Los viernes, sábados y vísperas de fiestas, dicho horario de cierre se incrementará en una hora. Asimismo desde el 1 de junio al 30 de septiembre dicho horario de cierre se incrementará en una hora. Por último toda terraza de hostelería podrá aumen-

cve: BAO-BOB-2014a050

dira Karmenetan eta Sanpedroetan eta Euskal Jaiaren egunean, betiere ordutegi horrek ez badu gainditzen jarduera nagusiak egun horietarako duen ordutegia. Aipatutako ordu gehikuntzak metatu egin daitezke. Ordutegi horiek ez dituzte inola ere indargabetuko autonomia erkidegoko agintaritza eskudunaren araudian ostalaritzako lokalentzat ezarritakoak.

2.—Oinezkoentzako eremu eta kaleetan, zamalanetarako ordutegia amaitu eta handik ordu erdira hasiko da terrazak jartzeko ordutegia.

3.—Terrazaren funtzionamendu ordutegia amaitutakoan, ainguratu gabeko elementu guztiak kendu beharko dira establezimenduaren kanpoaldetik eta lokal pribatu eta itxi batean gorde beharko dira. Terraza jasotzeko lanek 30 minutu iraungo dute gehienez, eta zaratarik gabe eta eragozpenik sortu gabe egingo dira.

4.—Lizentziaren titularrak edonoiz frogatu beharko du, Udalak hala eskatuz gero, jardueraren arriskuengatiko erantzukizunerako asegurua baduela.

***19. artikulua.—Terrazaren erabilera***

1.—Terrazaren titularrak betebehar hauek izango ditu:

a) Erabat garbi, seguru eta txukun mantentzea baimendutako okupazio eremuko zorua, instalazioa bera eta haren elementu osagarriak. Horretarako behar diren baliabide guztiak erabiliko dira, hala nola, zakarrontziak, hautsontziak, eta zorua eskobatzeko eta mahai-aulkiak garbitzeko zerbitzu etengabeak.
b) Zorrotz arduratzea inguruko bizilagunek zarata eta eragozpenik jasan ez dezaten, eta okupatutako eremua behar bezala erabiltzea, titularra baita haren erantzule bakarra.
c) Baimendu gabeko lekurik ez okupatzea galtzadetan edo espaloietan, igarobideetan eta etxebizitzetarako edo establezimenduetarako sarbideetan.
d) Terrazako erabiltzaileak behartzea erabilera publikoko gune itxi edo erdi itxi guztietan erretzeko legezko debekua betetzera. Hona hemen zer hartzen den gune erdi itxitzat: Lokal itxi batetik kanpo azaleraren %50 baino gehiago estalita duten lekuak, betiere keak modu naturalean kentzea bermatzen uzten duen kanpoko aireberritzea etengabe ez badaukate.

2.—Ezin da terrazen ondoan metatu edo pilatu produkturik, edari kaxarik eta bestelako materialik.

***20. artikulua.—Terrazaren erabilera amaitzea***

1.—Lizentzien titularrek, egun bakoitza amaitzean, instalatutako altzariak jaso eta metatu beharko dituzte eta instalazioak okupatzen duen zorua garbitzeko lanak egin beharko dituzte.

2.—Lizentziaren indarraldia amaitutakoan titularrak libre utzi beharko du instalazioak okupatutako lurzorua, elementu guztiak kenduz, eta garbiketa orokorra egin beharko du.

**V., kapitulua**

BAIMENA EMATEKO PROZEDURA

***21. artikulua.—Udal lizentzia. Eskabidea eta erantsi behar zaizkion agiriak***

1.—Eskabideak irailaren 15etik azaroaren 15era bitarteko epean aurkeztuko dira hurrengo ekitaldirako, Udalak horretarako deia egin eta gero. Baina, inguruabarrek eraginda, epe hori aldatu ahal izango da urtero, Alkatetzaren ebazpen bidez.

Epe horretatik kanpo aurkezten diren eskaerak ez dira tramitatzeko onartuko, kasu hauetan izan ezik:

a) Baimendu daitezkeen ostalaritzako establezimendu berriak.
b) Irekitzeko lizentziaren titularra aldatu zaien establezimenduak.

tar en una hora el horario de cierre durante las fiestas del Carmen y San Pedro y el día de celebración de Euskal jaia, siempre que este horario no exceda del que disponga la actividad principal para idéntico periodo. Los incrementos horarios señalados son acumulativos. En ningún caso estos horarios supondrán derogación de los establecidos, en la normativa de la autoridad autonómica competente, para los propios locales de hostelería.

2.—En las zonas y calles peatonales el horario de instalación no se iniciará hasta media hora después de finalizar el de carga y descarga.

3.—Finalizado el horario de funcionamiento de la terraza, deberán retirarse todos sus elementos, no anclados, del exterior del establecimiento (en lugar de la vía pública) y depositarse en local privado y cerrado al efecto. La duración de los trabajos de retirada no excederá de 30 minutos y se realizará de modo que dichos trabajos no generen ruidos ni molestias.

4.—La persona titular de la licencia deberá acreditar en cualquier momento, a requerimiento municipal, estar en posesión del correspondiente seguro de responsabilidad por los riesgos de la actividad.

***Artículo 19.—Uso de la terraza***

1.—Será obligación del titular de la terraza:

a) Mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, utilizando para ello todos los medios necesarios tales como papeleras, ceniceros, y los continuos servicios de barrido del suelo y limpieza de mesas y sillas.
b) Evitar, de forma rigurosa, ruidos y molestias a los vecinos del entorno, dando buen uso a la zona ocupada, al ser responsable único de la misma.
c) Evitar invadir espacios no autorizados en las calzadas u otras zonas de aceras, pasos y accesos a edificios de viviendas o establecimientos.
d) Obligar a los usuarios de la terraza a respetar la prohibición legal de fumar en todos los espacios cerrados o semicerrados de uso público. Se entiende por espacio semicerrado todas las zonas ubicadas fuera de un local cerrado que estén cubiertas en más del 50 % de su superficie y no se encuentren permanentemente ventiladas por aire exterior, que permita garantizar la eliminación de humos de forma natural.

2.—No se permite almacenar o apilar productos, cajas de bebidas u otros materiales junto a terrazas.

***Artículo 20.—Finalización del uso de la terraza***

1.—Los titulares de las licencias tienen la obligación de retirar y agrupar, al término de cada jornada, los elementos de mobiliario instalado y de realizar las tareas de limpieza necesarias del suelo ocupado por la instalación.

2.—Al finalizar la vigencia de la licencia, el titular tiene la obligación de dejar libre el suelo ocupado con la instalación, retirando todos los elementos y efectuando una limpieza general.

**Capítulo VI**

PROCEDIMIENTO DE AUTORIZACIÓN

***Artículo 21.—Licencia municipal. Solicitud y documentación adjunta***

1.—Las solicitudes se presentarán dentro del periodo comprendido entre el 15 de septiembre y el 15 de noviembre del ejercicio anterior, previa comunicación municipal al efecto. No obstante, si las circunstancias lo hicieran aconsejable, este periodo podrá ser modificado anualmente mediante resolución de Alcaldía.

Las solicitudes que se realicen fuera de este periodo no se admitirán a trámite, salvo en los siguientes casos:

a) Los nuevos establecimientos hosteleros que pudieran autorizarse.
b) Los establecimientos cuya licencia de apertura cambie de titularidad.

cve: BAO-BOB-2014a050

c) Egitatezko okupazioen erregularizazioak, titularrak egoera legeztatzeko interesa duenean.

d) Espazio publikoaren konfigurazioaren aldaketak terraza jartzeko aukera sortzen duenean.

Kasu horietan, edonoiz egin ahalko da eskaera, eta hilabeteko epean ebatziko da.

Terraza dagoeneko baimenduta daukaten ostalaritzako establezimenduek epe orokor hori erabili ahalko dute lehendik daukaten baimenaren edozein aldaketa proposatzeko: Denboraldia, antolaketa fisikoa, altzariak, titulartasuna etab.

2.—Interesdunak lizentzia eskatzeko eredua aurkeztu beharko du Udaletxean —erantsita doan ereduaren arabera edo antzeko edukia duen baten arabera—, Alkatetzari zuzenduta. Bertan datu hauek jarri beharko ditu:

a) Eskatzailearen izena eta bi deiturak edo sozietatearen izena. Eskatzailea izan beharko da irekitzeko lizentziaren titularra. Jakinarazpenetarako helbidea, onartuko diren jakinarazpen bideak, telefonoa, eta NANa edo IFK.

b) Jarduera nagusiaren izena, eta kokalekua, kale izendegiaren arabera.

c) Instalaziorako eskatzen den epea, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.—Eskabidearekin batera honako hauek ere aurkeztuko dira:

a) Titular mugakideen baimena, instalazioak jarduera nagusiaren establezimenduko fatxadaren mugak gainditzen baditu. Baimen horretan adierazi behar da zenbat denboran eduki nahi den terraza, 9.A.4 artikuluan azaldutako moduan.

b) Jarduera nagusia egiteko udal baimena (irekitzeko lizentzia), indarrean dagoena.

c) Instalazioaren datuak:

c.1.—Okupaziorako erabili nahi diren instalazio edo altzariei buruzko informazio teknikoa.

c.2.—Mahai eta aulkien kopurua eta modeloak, benetako neurriekin, eta instalatu beharreko gainerako elementuenak. Haien definiziorako behar den dokumentazio grafikoa erantsi beharko da. Manparak jarri behar badira, haien neurriak, xehetasun planoak eta/edo argazkiak aurkeztu behar dira.

c.3.—Lokalaren kokaeraren planoa 1:500 eskalan. Bertan fatxadaren luzera agertu behar da, eta instalazioak okupatuko duen azaleraren ($m^2$) xehetasuna. Eskatutako mahai eta aulkiak irudikatuko dira(errealitatearekin bat etorriko dira), eta edozein oztopo finko (trafiko seinaleak, zuhaitzak, jarlekuak, hiri altzariak, etab.) eta udal zerbitzuen gaineko eraginak (ura, saneamendua, gasa, etab.) ere bai. Alboetako babesak instalatu behar badira, horiek ere marraztuko dira.

c.4.—Terraza estaltzeko egitura ainguratuak jartzen badira, 9.E artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da.

c.5.—Jabari publikoko elementuei edo pertsonei kalte egiten bazaie kalteen erantzukizuna onartuko dela dioen konpromisoa. Gero, zerbitzu teknikoak lizentzia eskaerari buruzko txostena egindakoan, eta lizentzia eman aurretik, Udaletxean erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia ere aurkeztu beharko da. Poliza horretan terrazaren erabilera aseguratu beharko da erantzukizun zibileko eta suteen aseguru polizako estaldurarekin, gutxienez hala ezartzen baita Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko Legean. Aseguru horrek bere gain hartu beharko du terrazaren funtzionamendutik erator litezkeen antzeko arriskuak ere estaltzea. Gainera, estalki iraunkordun terrazak direnean, fidantza aurkeztu beharko da, zerbitzu teknikoak zehaztuta zenbateko fidantza den.

c) Las que se refieran a una regularización de una ocupación de hecho cuando su titular tenga interés en legalizar la situación.

d) Cuando se modifique la configuración del espacio público y ello posibilite la colocación de la terraza.

En estos supuestos podrán formular su solicitud en cualquier momento, que será resuelta en el plazo de un mes.

Los establecimientos hosteleros que cuenten ya con terraza autorizada utilizarán este plazo general para proponer cualquier tipo de modificación con respecto a la autorización anterior: Temporada, configuración física, mobiliario, titularidad, etc.

2.—El interesado deberá presentar ante el Ayuntamiento la solicitud de licencia —según modelo anexo u otro de similar contenido— dirigido a la Alcaldía, en la que deberá figurar:

a) Nombre y dos apellidos o razón social del solicitante, que deberá ser el titular de la licencia de apertura. Domicilio a efectos de notificaciones y medios de notificación admitidos, teléfono y D.N.I. o en su caso C.I.F.

b) Nombre y emplazamiento, según callejero de la actividad principal.

c) Plazo solicitado para la instalación pretendido, conforme a lo previsto en el artículo 23.

3.—La solicitud deberá venir acompañada además de:

a) Autorización de los titulares colindantes en los supuestos en los que la instalación exceda de los límites de la fachada del establecimiento que constituye la actividad principal. Esta autorización expresará el tiempo por el que se pretenda mantener la terraza en los términos descritos en el articulo 9.A.4.

b) Autorización municipal para el ejercicio de la actividad principal (licencia de apertura) vigente.

c) Datos de la instalación:

c.1.—Información técnica relativa a las instalaciones o muebles con los que se pretenda realizar la ocupación.

c.2.—Indicación del número de mesas y sillas y modelos de las mismas con sus dimensiones reales, así como del resto de los elementos a instalar. Se deberá aportar documentación gráfica necesaria para su definición. En el caso de mamparas, se deberá indicar sus dimensiones, planos de detalle de los mismo y/o fotografías.

c.3.—Plano de emplazamiento del local a escala 1:500, con indicación de la longitud de su fachada y detalle acotado de la superficie ($m^2$) a ocupar por la instalación. Se reflejarán las mesas y sillas solicitadas debiéndose corresponder con la realidad, la existencia de cualquier obstáculo fijo (señales de tráfico, árboles, bancos, mobiliario urbano, etc.) y de posibles afecciones a servicios municipales (agua, saneamiento, gas, etc...), se dibujarán las protecciones laterales en caso de su instalación,

c.4.—En caso de cubrición mediante estructuras ancladas, la documentación según articulo 9.E.

c.5.—Compromiso de asunción de los daños que puedan derivarse para los elementos del dominio público y para las personas. Posteriormente, una vez sea informada la solicitud de licencia por el servicio técnico, y con carácter previo a la concesión de la licencia, deberá depositarse en el Ayuntamiento una copia de la póliza de seguro de responsabilidad civil que incluya la cobertura del uso de terraza solicitada, con una cobertura no inferior a la póliza de seguro de responsabilidad civil e incendios de que deba disponer el titular del establecimiento, de acuerdo con la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recretativas, extendiendo su cobertura a los posibles riesgos de igual naturaleza que puedan derivarse del funcionamiento de la terraza. Además, en el caso de terrazas con cubierta estable, deberá depositarse fianza en cuantía adecuada establecida por el servicio técnico.

cve: BAO-BOB-2014a050

*22. artikulua.—Lizentzia ematea*

1.—Aurreko artikuluetan adierazitako moduan eskaera aurkeztu eta gero, ikuskapen bisita egingo da, terrazaren neurriak eta kokapena zehazteko. Txosten teknikoa eta, behar izanez gero, txosten juridikoa egin ondoren, Alkatetzak hilabeteko epean ebatziko du. Alkatetzak epe horren barruan erantzuten ez badu, horrek ez dio baimenik ematen eskatzaileari ipini nahi duen terraza jartzeko, hala ezartzen baita administrazio legeria orokorrean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko Legearen 43.2 artikulua).

2.—Lizentzia emateko garaian hainbat inguruabar hartuko dira kontuan: Kasuan kasuko espazio publikoan ostalaritzako edo bestelako establezimendu gehiago dagoen, inguruan dauden zerbitzu publikoak, oinezkoen trafikoaren intentsitatea, kalean dagoen merkataritzako ekipamenduaren maila, eta abar. Ostalaritzako establezimendu gehiago badaude, espazio publikoak bidezko moduan banatzeko ahaleginak egingo dira.

3.—Eskatu diren eta baimendu daitezkeen gainerako elementuak ere lizentzian agertuko dira, baita, eskatu ez diren arren, nahitaez instalatu behar diren elementuak ere.

*23. artikulua.—Espazio publikoaren okupazioak mugatu eta seinalatzea*

Udal zerbitzu teknikoek mugatu egingo dituzte baimendutako erabilerek ukitutako espazio publikoak, eta behar bezala seinalatuko dituzte. Baimendutako pertsonak, baimendutako erabilerak dirauen bitarte osoan, seinaleak zaintzeaz arduratuko dira. Egindako mugaketa ezin izango da inoiz aldatu edo kendu Udalak aldez aurretik baimena eman gabe.

*24. artikulua.—Ikuskapena eta kontrola*

Sopelako Udaltzaingoak beteko ditu ikuskapen eta kontrol eginkizunak; eta Udalaren Zerbitzu Teknikoak bereak egin ahal izango ditu.

*25. artikulua.—Terrazak erabiltzeko denbora tarteak*

Ostalaritzako terrazak denboraldi hauetarako baimenduko dira:

— Urteko denboraldia, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.
— Denboraldi luzea, martxoaren 1etik urriaren 31ra arte.
— Denboraldi laburra, maiatzaren 1etik urriaren 30era arte.

*26. artikulua.—Indarraldia eta berritzea*

1.—Lizentziek gehienez hamabi hilabeteko indarraldia izango dute, eta inoiz ez da gaindituko lizentzia ematen deneko urte naturala.

2.—Zein denboralditarako eman, denboraldi horri dagokion iraupena izango du lizentziak.

3.—Indarraldia amaitzen denean, titularrak, hurrengo ekitaldirako beste lizentzia bat eduki ezean, instalazio osoa kendu beharko du, eta okupatutako aldea lehen zegoen bezala utzi beharko du.

4.—Lizentziak berez berrituko dira hurrengo ekitaldirako eta denboraldi bererako, titularrak ez badu kontrakorik adierazten aurreko ekitaldiko urriaren 15etik azaroaren 15era bitarteko epea hasi aurretik edo beren-beregi igorritako jakinarazpenean. Dena dela, atzera egin ahal izango du, baimendutako terraza instalatzeko epea hasi baino 15 egun lehenago arte.

Establezimendu eta jabego mugakideak ukitzen dituen terraza jartzeko baimena duten establezimenduek, lizentzia hurrengo ekitaldirako berritzen dutenean, mugakideen adostasun eguneratua aurkeztu beharko dute, berritzeari buruzko jakinarazpenean ematen zaien epearen barruan, salbu eta lizentzia emateko kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatuta badaude edo Udalak beharrezkotzat jotzen badu lizentzian aldaketaren bat egitea; kasu horretan, ordenantza honen arabera beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztuko da.

Erantzukizun zibileko aseguruak hurrengo ekitaldian indarrean jarraituko duela frogatzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

*Artículo 22.—Otorgamiento de la licencia*

1.—Formulada la petición, en los términos exigidos en los artículos precedentes, será girada visita de inspección para determinar la concreta dimensión y emplazamiento de la terraza, y previo informe técnico y en caso de resultar necesario, jurídico, la Alcaldía resolverá en el plazo de un mes. La falta de contestación de la Alcaldía en ese plazo no autoriza al solicitante a instalar la terraza pretendida, en virtud de la legislación administrativa general (art. 43.2 Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas).

2.—La licencia se otorgará, en todo caso, considerando circunstancias tales como la concurrencia con otros establecimientos de hostelería, y de otra tipología, en cada espacio público concreto, los servicios públicos existentes, la intensidad del tránsito peatonal y el nivel de equipamiento comercial de la vía, etc. En el caso de concurrencia con otros establecimientos de hostelería se procurará la distribución equitativa de los espacios públicos.

3.—Las licencias expresarán cuantos otros elementos se hayan solicitado y proceda su autorización, así como los que sin solicitarse sean de obligada instalación.

*Artículo 23.—Acotación y señalización de las ocupaciones del espacio público*

La acotación y debida señalización de los espacios públicos afectados por las utilizaciones autorizadas será realizada por parte de los servicios técnicos municipales. Las personas autorizadas velarán por el correcto manteniendo de la señalización durante todo el periodo que dure la utilización autorizada. La delimitación realizada en ningún caso podrá ser alterada ni retirada sin previa autorización municipal.

*Artículo 24.—Inspección y control*

Las funciones de inspección y control serán realizadas por la Policía Municipal de Sopelana, sin perjuicio de las que efectúe el Servicio Técnico Municipal.

*Artículo 25.—Ámbito temporal de utilización de las terrazas*

Las terrazas de hostelería se autorizarán por las siguientes temporadas:

— Temporada anual, del 1 de enero al 31 de diciembre.
— Temporada larga, del 1 de marzo al 31 de octubre.
— Temporada corta, del 1 de mayo al 30 de octubre.

*Artículo 26.—Vigencia y Renovación*

1.—La vigencia de las licencias se establecerá para un máximo de doce meses sin que en ningún caso se pueda superar el año natural en que se otorga la misma.

2.—Tendrán la vigencia correspondiente a la duración de la temporada para la que son concedidas.

3.—Transcurrido el período de vigencia y salvo que el titular disfrute de nueva licencia para el ejercicio siguiente, deberá retirar toda la instalación, devolviendo la zona ocupada a su estado anterior.

4.—Las licencias serán renovadas automáticamente para el siguiente ejercicio y por la misma temporada, cuando no se manifieste lo contrario por su titular con anterioridad al plazo comprendido entre el 15 de octubre y 15 de noviembre del ejercicio anterior o en la comunicación específica que se curse al efecto. En cualquier caso podrá desistir con una antelación de 15 días al inicio del concreto periodo de instalación de la terraza que estuviera autorizado.

Los establecimientos autorizados para colocar una terraza que afecte a establecimientos y propiedades colindantes, que renueven su licencia para el siguiente ejercicio, deberán aportar durante el plazo otorgado en la comunicación de renovación, la actualización de la conformidad de los colindantes, salvo que hubieran variado las circunstancias que dieron origen a aquélla, o se considere necesario por parte del Ayuntamiento realizar alguna modificación de la misma, en cuyo caso se presentará la documentación necesaria según la presente Ordenanza.

Asimismo, deberán aportar documentación acreditativa de la vigencia del seguro de responsabilidad civil para el nuevo ejercicio.

cve: BAO-BOB-2014a050

**VII. kapitulua**

LEGEZKOTASUNA BERREZARTZEKO ARAUBIDEA

***27. artikulua.—Udal lizentziarik gabeko instalazioak***

1.—Alkatetzak kendu ahalko ditu, badaezpada eta berehala, bide publikoan lizentziarik gabe instalatutako terrazak, eta berariaz izendatutako lekuan gorde ahalko ditu, eta arauzko zehapenak ezarri.

2.—Lizentzian ezarritako baldintzak bete gabe terrazak instalatzen direnean, berriz, Alkatetzak egintza horiek berehala eteteko aginduko du. Instalazioaren titularrak ez badu instalazioa kentzen edo emandako lizentziaren baldintzei egokitzen, agindutakoaren betearazpen subsidiarioari ekingo zaio.

3.—Lizentziaren indarraldia amaitutakoan terraza ez kentzea udal lizentziarik ez edukitzearen parekotzat joko da, zehapena ezartzeari dagokionez.

***28. artikulua.—Betearazpen subsidiarioa***

1.—Espazio publikoan jarritako elementuak kentzea, aurreko artikuluan xedatutako moduan hala aginduta, legezkotasuna berrezartzeko egintza izango da. Legezkotasuna berrezarri behar duenak ez badu agindua bere borondatez betetzen, Udalak kenduko du instalazioa, eta berariaz izendatutako lekuan gordeko du. Jabeak bertatik jaso ahal izango du, aldez aurretik gastuak, kalteak eta galerak ordaintzen baditu.

2.—Kapitulu honetan xedatutako moduan espazio publikotik kentzen diren elementuak gehienez 6 hilabetean gordeko dira. Epe horretan interesdunak jasotzen ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga egingo ditu.

**VIII. kapitulua**

ZEHAPEN ARAUBIDEA

***29. artikulua.—Arau-hauste motak***

Ordenantza honen kontrako arau-hausteak dira bertako artikuluei edo lizentzietan ezarritako baldintza zehatzei aurka egiten dieten ekintzak eta omisioak. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen XI. tituluan xedatutakoaren babesean, honela sailkatzen dira: Arau-hauste arinak, arau-hauste larriak eta arau-hauste oso larriak. Zehapen araubide hori alde batera utzi gabe, legeria sektorialean sailkatuta dauden arau-hausteek legeria horretan ezarritako zehapenak izango dituzte.

***30. artikulua.—Arau-hausteen erantzuleak***

Ekintza edo omisioen erantzule diren pertsona fisiko edota juridikoei egotzi ahalko zaizkie arau-hausteak, eta lizentziaren titularrarengana hedatuko da beraren ordezko, laguntzaile, ordezkari edo enplegatuei egotzi ahal zaizkien ekintza eta omisioen erantzukizuna; hori guztia, alde batera utzi gabe ordenantza honetako artikuluetan ezarritako erantzukizun solidario edo subsidiarioa.

Arau-haustea nork egin duen ikertzeko eginbideak egin ondoren, ezin bada zehaztu arau-haustea egin duten subjektuetako bakoitzak zenbateraino parte hartu duen, erantzukizuna solidarioa izango da.

***31. artikulua.—Arau-hausteak eragindako kalteen erantzukizuna***

Arau-hausleek erantzun beharko dute arau-hausteen ondorioz pertsona edo ondasunek izandako kalteengatik, ondasun publikoak ere tartean, hala nola espazio publikoa bera eta bertan instalatutako altzariak.

**Capítulo VII**

RÉGIMEN DE RESTAURACIÓN DE LA LEGALIDAD

***Artículo 27.—Instalaciones sin licencia municipal***

1.—La Alcaldía podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, las terrazas instaladas sin licencia en la vía pública y proceder a su depósito en lugar designado para ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.

2.—Cuando las terrazas estén instaladas sin ajustarse a las condiciones señaladas en la licencia, la Alcaldía dispondrá la suspensión inmediata de dichos actos. Si el titular de la instalación no procediese a la retirada de la instalación o no ajustase la misma a las condiciones de la licencia otorgada se procederá a la ejecución subsidiaria de lo ordenado.

3.—La permanencia de terrazas tras la finalización del período de vigencia de la licencia será asimilada, a los efectos sancionadores, a la situación de falta de licencia municipal.

***Artículo 28.—Ejecución subsidiaria***

1.—La retirada de los elementos instalados en el espacio público ordenada de conformidad con lo dispuesto en el artículo anterior, será considerada bajo el concepto de restauración de la legalidad. Si el responsable de tal restauración no cumpliera con la misma voluntariamente, el Ayuntamiento, procederá al levantamiento de la instalación, quedando depositada en lugar designado para ello, de donde podrá ser retirada por la propiedad, previo abono de los gastos, daños y perjuicios correspondientes.

2.—Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente capítulo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

**Capítulo VIII**

RÉGIMEN SANCIONADOR

***Artículo 29.—Clases de infracciones***

Son infracciones de esta Ordenanza las acciones y omisiones que contravengan tanto su articulado como las concretas condiciones a que se sujeten las correspondientes licencias, y al amparo de lo dispuesto en el Título XI de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, se clasifican en infracciones leves, infracciones graves y muy graves. Sin perjuicio de este régimen sancionador, las infracciones que resulten tipificadas en la correspondiente legislación sectorial, serán sancionadas con las sanciones establecidas en dicha legislación.

***Artículo 30.—Personas responsables de las infracciones***

Son imputables tales infracciones a las personas físicas y/o jurídicas que resulten responsables de tales acciones u omisiones, extendiéndose a quien sea titular de la licencia la responsabilidad derivada de las acciones y omisiones imputables a su suplente, colaborador/a, representante o empleado/a, y ello sin perjuicio de la responsabilidad solidaria o subsidiaria establecida en los diferentes artículos de esta ordenanza.

En el supuesto de que una vez practicadas las diligencias de investigación oportunas tendentes a individualizar a la persona o personas infractoras, no fuera posible determinar el grado de participación de los diversos sujetos que hayan intervenido en la comisión de la infracción, la responsabilidad será solidaria.

***Artículo 31.—Responsabilidad por los daños ocasionados con ocasión de la comisión de las infracciones***

Las personas infractoras serán responsables de los daños que con ocasión de la comisión de las infracciones se ocasionen para las personas o bienes, incluidos los bienes públicos, como son el propio espacio público y los elementos de mobiliario instalados en el mismo.

cve: BAO-BOB-2014a050

### *32. artikulua.—Arau-hauste arinak*

Ekintza edo omisio hauek arau-hauste arinak dira:

1.—Jarduera hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea ordu erditik beherako aldeagatik.

2.—Terraza muntatu eta desmuntatzeko lanetan zarata ateratzea.

3.—Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea edo baimendutakoak baino mahai edota aulki gehiago jartzea, baimendutako azaleraren edota baimendutako mahai eta aulki kopuruaren %10eko aldea gainditu gabe.

4.—Baimendutako terrazako instalazioen narriadura arina edo garbitasun falta.

5.—Baimendutako terraza kokatuta dagoen espazio publikoaren eta inguruen garbitasun falta, bai funtzionamendu aldian zein hura amaitutakoan.

6.—Udal lizentziaren frogagiria bezeroek, bizilagunek eta agintaritzaren agenteek ondo ikusten duten lekuan ez jartzea.

7.—Terraza baimendutako lekuan edota moduan ez kokatzea.

8.—Establezimendutik kanpoko hiri altzari eta apaingarrien narriadura arina, lizentziaren xede den jardueraren ondorioz.

9.—Instalazioen ondoan hornigaiak, ontziak edo tresnak uztea, eta mahaiak, aulkiak edo beste edozein elementu bide publikoan pilatzea, terraza zabalik dagoen bitartean.

10.—Ordenantza honetan edo baimenean ezarritako betebeharrak ez betetzea edo debekuak urratzea, jokaera hori beren beregi arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez dagoenean.

### *33. artikulua.—Arau-hauste larriak*

Ekintza edo omisio hauek arau-hauste larriak dira:

1.—Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea edo baimendutakoak baino mahai edota aulki gehiago jartzea, baimendutako azaleraren edota baimendutako mahai eta aulki kopuruaren %30eko aldea gainditu gabe.

2.—Establezimenduari atxikita edo establezimenduaren ondoan dauden altzari eta apaingarrien narriadura larria, lizentzia edo kontzesioaren xede den jardueraren ondorioz; betiere, jokaera hori arau-hauste arina edo oso larria ez denean.

3.—Lanaldia amaitutakoan kanpoaldeko altzariak ez jasotzea ordenantza honetan ezarritako moduan.

4.—Baimendu gabeko publizitatea daukaten mahai, aulki, eguzkitako, toldo eta abarrekoak instalatzea.

5.—Edozein motatako kartelak, publizitate hesiak eta bestelako erakarpen elementuak instalatzea, edo, publizitaterako ez bada ere, bide publikoa okupatzen duen eta berariaz baimenduta ez dagoen beste edozein elementu instalatzea.

6.—Baimenduta ez dauden altzariak jartzea edota erabiltzea.

7.—Traba egiten duten elementuak jartzea eraikinetako eta merkataritza edo zerbitzu lokaletako sarbideetan, oinezkoen pasabideetan, larrialdietarako irteeretan, zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duten tokietan, ezinduentzako aparkalekuetan, autobusen eta garraiobide publikoen geralekuetan, taxien aparkalekuen aurrealdean, Udalak baimendutako pasaguneetan, hondakinak biltzeko edukiontzien ondoan.

8.—Traba egitea ur harguneetan, sute-ahoetan, estolderiako erregistroetan, transformazio zentroetan eta gainerako erregistro-kutxatiletan, zerbitzu publikoei elementu horiek berehala erabiltzea eragozten zaien moduan.

### *Artículo 32.—Infracciones leves*

Constituyen infracciones leves las siguientes acciones u omisiones:

1.—El incumplimiento del horario de inicio o cierre de la actividad en menos de media hora.

2.—La producción de ruidos durante las labores de montaje y desmontaje de la terraza.

3.—La ocupación de mayor superficie de la autorizada o la colocación de mayor número de mesas o sillas de las autorizadas, siempre y cuando el exceso no supere el 10% de la superficie o del número de los elementos autorizados —mesas y sillas—.

4.—El deterioro leve o la falta de limpieza de las instalaciones que conforman la terraza autorizada.

5.—La falta de limpieza del espacio público donde se emplace la terraza autorizada, y sus proximidades, tanto durante su funcionamiento como al término de la misma.

6.—La falta de exposición en lugar visible para la clientela, vecindad y agentes de la autoridad del documento acreditativo de la licencia municipal.

7.—La colocación o emplazamiento de la terraza de forma diferente de la autorizada.

8.—El deterioro leve de los elementos de mobiliario y ornamentales urbanos anejos o colindantes al establecimiento, producidos como consecuencia de la actividad objeto de licencia.

9.—Depositar acopios, envases o enseres de cualquier clase junto a las instalaciones, así como el apilamiento de mesas y sillas o cualquier otro elemento en la vía pública, durante el funcionamiento de la terraza.

10.—Todo incumplimiento de obligaciones y vulneración de prohibiciones establecido en la presente Ordenanza o contemplado en el título autorizante, no calificado expresamente como falta grave o muy grave.

### *Artículo 33.—Infracciones graves*

Constituyen infracciones graves las siguientes acciones u omisiones:

1.—La ocupación de mayor superficie de la autorizada, o la colocación de mayor número de mesas y sillas de las autorizadas, siempre y cuando el exceso no exceda del 30% de la superficie o elementos autorizados.

2.—El deterioro grave de los elementos del mobiliario y ornamentales anejos o colindantes al establecimiento, cuando se produzcan como consecuencia de la actividad objeto de la licencia o concesión, siempre y cuando no constituyan falta leve o muy grave.

3.—La no retirada del mobiliario del exterior, una vez finalizado la jornada laboral, en los términos establecidos en la presente ordenanza.

4.—La instalación de mesas, sillas, sombrillas, toldos, etc. que contengan publicidad no permitida.

5.—La instalación de cualquier tipo de carteles, vallas publicitarias u otros elementos de reclamo, así como cualquier otro elemento que aún no siendo publicitario, suponga ocupación de la vía pública y no estén expresamente autorizados.

6.—La colocación y/o utilización de mobiliario distinto del autorizado.

7.—La colocación de elementos que impidan o dificulten el acceso a edificios, locales comerciales o de servicios, paso de peatones, salidas de emergencias, así como que impidan la visibilidad de las señales de circulación, plazas de aparcamiento para personas con discapacidad, paradas de autobuses y transportes públicos, cabecera de aparcamiento de taxis, vados autorizados por este Ayuntamiento, contenedores de recogida de los diferentes residuos.

8.—La ocupación de las bocas de riego, los hidrantes, registros de alcantarillado, centros de transformación y de las demás arquetas de registro de forma que impida su utilización inmediata por los servicios públicos.

cve: BAO-BOB-2014a050

9.—Lizentzia ematerakoan ezarritako berariazko baldintzak ez betetzea.

10.—Terrazan irudi, soinu edo bibrazio akustikoen anplifikadoreak edo erreproduzigailuak jartzea.

11.—Musika emanaldiak egitea Udalaren baimenik gabe.

12.—Aireko konexio elektrikoak egitea.

13.—Aurkezten den dokumentazioan datuak ezkutatu, manipulatu edo faltsutzea, lizentzia eskuratzeko asmoz.

14.—Udaltzainei edo ikuskatzaileei lizentziaren agiria edo horrekin zerikusia duen beste edozein agiri ez erakustea, eskatzen dutenean.

15.—Hasiera edo itxiera ordutegia ez betetzea ordu erditik gorako eta ordubetetik beherako aldeagatik.

16.—Terrazaren ustiapena titularra ez den norbaiti lagatzea.

17.—Urte baten buruan bi arau hauste arin baino gehiago egitea.

### *34. artikulua.—Arau-hauste oso larriak*

1.—Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea edo baimendutakoak baino mahai edota aulki gehiago jartzea, baimendutako azaleraren edota baimendutako mahai eta aulki kopuruaren %30eko aldea gaindituta.

2.—Udal lizentziarik eduki gabe terraza instalatzea.

3.—Baimendutako epetik kanpo terraza instalatzea.

4.—Instalazioak ez desmuntatzea lizentziaren indarraldia amaitutakoan edo udal agintaritzak hala eskatzen duenean.

5.—Instalazioa berehala eteteko agindua ez betetzea, horren ondorioz bizikidetzaren asaldura nabarmena gertatzen bada eta larri, hurre-hurretik eta zuzenean eragiten bazaie beste pertsona batzuen lasaitasunari edo eskubide legitimoen erabilerari, araudi aplikagarria betetzen duten mota guztietako jardueren ohiko garapenari edo osasun eta apaintasun publikoei, edo zerbitzu publikoren baten erabilera nahiz funtzionamendua eragozten edo oztopatzen bada, edo narriadura larria eragiten bada ekipamenduetan, azpiegituretan, zerbitzu publikoen instalazioetan, espazio publikoetan edo bertako instalazioetako edozeinetan.

6.—Hasiera edo itxiera ordutegia ez betetzea ordubetetik gorako aldeagatik, horren ondorioz bizikidetzaren asaldura nabarmena gertatzen bada eta larri, hurre-hurretik eta zuzenean eragiten bazaie beste pertsona batzuen lasaitasunari edo eskubide legitimoen erabilerari, araudi aplikagarria betetzen duten mota guztietako jardueren ohiko garapenari edo osasun eta apaintasun publikoei.

7.—Manipulatutako edo gezurrezko dokumentazioa aurkeztea.

8.—Dagokion udal baimenik gabe, kultur edo gizarte ekitaldiak egitea.

9.—Urte baten buruan bi arau hauste larri baino gehiago egitea.

### *35. artikulua.—Zehapenen zenbatekoa*

Arau-hauste arinengatiko zehapena 300 eurotik 750 eurora bitarteko isuna izango da, arau-hauste larriengatiko zehapena 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna izango da eta arau-hauste oso larriengatiko zehapena 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izango da.

Arau hauste larriak, txandaka edo metatuz, terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko lizentzia 1-3 hilabetez kentzeaz zehatuko dira; arau hauste oso larriak, berriz, txandaka edo metatuz, terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko lizentzia 3 hilabete eta egun batetik 6 hilabetera bitarteko kentzeaz zehatuko dira.

9.—El incumplimiento de las condiciones específicas que se hayan contemplado en el otorgamiento de la licencia.

10.—La colocación en la terraza de aparatos o equipos amplificadores o reproductores de imagen, sonido o vibraciones acústicas.

11.—La celebración de actuaciones musicales sin autorización municipal.

12.—Realizar conexiones eléctricas aéreas.

13.—Ocultación, manipulación o falsedad de los datos o de la documentación aportada con la intención de obtener la licencia.

14.—La no exhibición del documento de licencia u otro relacionado a cualquier agente de la policía local o del servicio de inspección que lo requiera.

15.—El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de media hora y menos de una hora.

16.—La cesión de la explotación de la terraza a persona distinta de su titular.

17.—La comisión de más de dos faltas leves en un año.

### *Artículo 34.—Infracciones muy graves*

1.—La ocupación de mayor superficie de la autorizada, o la colocación de mayor número de mesas y sillas de las autorizadas, siempre y cuando el exceso supere el 30 % de la superficie o elementos autorizados.

2.—La instalación de una terraza careciendo de la preceptiva licencia municipal.

3.—La instalación de una terraza en periodo de tiempo diferente del autorizado.

4.—No desmontar las instalaciones, una vez terminado el período de vigencia de la licencia o cuando fuese requerido por la autoridad municipal.

5.—El incumplimiento de la orden de suspensión inmediata de la instalación cuando de ello se derive una perturbación relevante de la convivencia que afecte de manera grave, inmediata y directa a la tranquilidad o al ejercicio de derechos legítimos de otras personas, al normal desarrollo de actividades de toda clase conformes con la normativa aplicable o a la salubridad u ornatos públicos, o cuando con ello se impida u obstruya el uso o funcionamiento de un servicio público o suponga un deterioro grave de equipamientos, infraestructuras, instalaciones de servicios públicos, espacios públicos o cualquiera de sus instalaciones.

6.—El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de una hora, cuando de ello se derive una perturbación relevante de la convivencia que afecte de manera grave, inmediata y directa a la tranquilidad o al ejercicio de derechos legítimos de otras personas, al normal desarrollo de actividades de toda clase conformes con la normativa aplicable o a la salubridad u ornatos públicos.

7.—El suministro de documentación manipulada o falsa.

8.—La celebración de actos culturales y/o sociales sin contar con la correspondiente autorización municipal.

9.—La comisión de más de dos faltas graves en un año.

### *Artículo 35.—Importe de las sanciones*

Las sanciones por infracciones leves consistirán en multa de 300 euros hasta 750 euros, las sanciones por infracciones graves consistirán en multa de 751 euros hasta 1.500 euros y las sanciones por infracciones muy graves consistirán en multa de 1501 euros hasta 3.000 euros multa.

Las infracciones graves serán sancionadas, alternativa o acumulativamente, con la retirada de la correspondiente licencia para la instalación de terrazas y veladores por periodo de 1 a 3 meses y las infracciones muy graves serán sancionadas alternativa o acumulativamente, con la retirada de la correspondiente licencia para la instalación de terrazas y veladores por periodo de 3 meses y un día a 6 meses.

cve: BAO-BOB-2014a050

### *36. artikulua.—Zehapenak mailakatzea*

Isunak, zehapen espedientearen instrukzioan antzeman daitezkeen inguruabarren ponderazioa ezertan eragotzi gabe, mailakatu egingo dira, kontuan izanik arau-haustea nahita edo errepikatuta egin den, zer nolako kalteak eragin diren, eta berrerori egin den, hau da, urtebeteko epean mota bereko arau-hauste bat baino gehiago egin diren, ebazpen irmoen bidez horrela deklaratuta.

### *37. artikulua.—Zehapen prozedura*

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko eta ebazpenen aurkako errekurtsoak jartzeko prozedura EAEko Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/98 Legean ezarritakoa izango da.

### *38. artikulua.—Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa*

Arau-hauste arinak sei hilabete igarotakoan preskribatuko dira, larriak bi urte igarotakoan eta oso larriak hiru urte igarotakoan.

Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenak urtebete igarotakoan preskribatuko dira, arau-hauste larrien zehapenak bi urte igarotakoan, eta arau-hauste oso larrien zehapenak hiru urte igarotakoan preskribatuko dira. Preskripzio epea kontatzeari eta epe horren etenaldiei dagokienez, administrazio prozedura erkideari buruzko araudian ezarritakoaren arabera jokatuko da.

## IX. kapitulua

## LIZENTZIA EZEZTATZEA ETA LIZENTZIA GEHIAGO EZ EMATEA

### *39. artikulua.—Lizentzia ezeztatzea eta lizentzia gehiago ez ematea*

Terrazak eta mahaitxoak instalatzeko lizentzia ezeztatu egingo da titularrari zehapen irmoa ezartzen bazaio arau-hauste larria egiteagatik eta, zehapen hori irmo bihurtzen denetik urtebete igaro baino lehenago, beste zehapen irmo bat jasotzen badu berriro ere arau-hauste oso larria egiteagatik. Lizentzia ezeztatzeko ebazpenean, komenigarritzat jotzen bada, pertsona horri epe jakin bat igaro arte espazio publikoa erabiltzeko lizentzia gehiago ez zaiola emango ezarriko da. Era berean, lizentziarik ez duen pertsona batek arau-hauste oso larria egiten duenean, zehapen-ebazpenean ezarriko den epea igaro arte ez zaio espazio publikoa erabiltzeko lizentziarik emango pertsona horri. Epea gutxienez urtebetekoa izango da eta gehienez lau urtekoa.

## XEDAPEN IRAGANKOR LEHENENGOA

Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean jada instalatuta dauden estalki iraunkorreko terrazek 2015eko urtarrilaren 1era arteko epea izango dute ordenantza honetako baldintza guzti-guztietara egokitzeko, eta 2014ko azaroaren 15era arte aurkeztu ahalko dute horretarako behar den dokumentazioa. Salbuespena izango da, hala ere, IV. kapituluaren aplikazioari dagokiona («Irizpide estetikoak»); kasu horretan, gehienez ere 2015eko urtarrilaren 1era arteko epea izango dute irizpide horietara egokitzeko, eta 2014ko azaroaren 15era arte aurkeztu ahal izango dute behar den dokumentazioa.

Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean jada instalatuta dauden gainerako terrazek (estalki iraunkorrik gabekoak) 2013ko martxoaren 1era arteko epea izango dute ordenantza honetako baldintza guzti-guztietara egokitzeko, eta 2013ko martxoaren 15era arte aurkeztu ahalko dute horretarako behar den dokumentazioa.

## BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Baldin eta jartzeko lizentzia eskatzen zaien terrazek ordenantza honetan baimena eman ahal izateko ezartzen diren baldintzak betetzen ez badituzte edo baldintzok ezin badituzte bete, Udalak, xedapen iragankor hau indarrean sartu eta hurrengo bost urteetan, lizentzia eman ahal izango du ondoko inguruabar guztiak betetzen direnean; hona hemen inguruabarrok:

### *Artículo 36.—Graduación de sanciones*

Las multas, sin perjuicio de las ponderaciones de las circunstancias concretas concurrentes que puedan apreciarse durante la instrucción del expediente sancionador, se graduarán, atendiendo a la existencia de intencionalidad o reiteración, la naturaleza de los perjuicios causados así como reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme.

### *Artículo 37.—Procedimiento sancionador*

El procedimiento para la imposición de las sanciones a las infracciones previstas en la presente Ordenanza y para los recursos que contra las resoluciones pudieran interponerse será el previsto en la ley 2/98 de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco.

### *Artículo 38.—Prescripción de infracciones y sanciones*

Las infracciones leves prescriben a los seis meses, las graves a los dos años y las muy graves a los tres años.

Las sanciones impuestas por infracciones leves prescriben al año, las sanciones por infracciones graves a los dos años, y las sanciones por infracciones muy graves prescriben a los tres años. El cómputo del plazo de prescripción y su interrupción se realizará conforme a lo establecido en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común.

## Capítulo IX

## REVOCACIÓN DE LAS LICENCIAS Y NO OTORGAMIENTO DE NUEVAS LICENCIAS

### *Artículo 39.—Revocación de las licencias y no otorgamiento de nuevas licencias*

Se procederá a la revocación de toda licencia para la instalación de terrazas y veladores, cuando su titular sea objeto de sanción firme por infracción grave y en el plazo de un año, desde la firmeza de la misma, sea sancionado/a, con carácter firme, por la comisión de una nueva infracción muy grave. La resolución revocatoria determinará, en el caso de que así se estime conveniente, el periodo de tiempo durante el cual no se otorgarán nuevas licencias para la utilización del espacio público a la misma persona. Igualmente y para el caso de la comisión de infracciones muy graves por parte de personas carentes de la preceptiva licencia, la resolución sancionadora determinará el periodo de tiempo durante el cual no se otorgarán licencias para la utilización del espacio público a dicha persona, que en ningún caso será inferior a un año ni superior a cuatro años.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA

Las terrazas con cubiertas estables ya instaladas a la fecha de entrada en vigor de la presente Ordenanza, deberán estar adaptadas a todas y cada una de las condiciones de la misma como plazo máximo para el 1 de enero de 2015, pudiendo presentar la documentación necesaria hasta el 15 de noviembre de 2014.

El resto de terrazas, (con cubiertas no estables), ya instaladas a la fecha de entrada en vigor de la presente Ordenanza deberán estar adaptadas a todas y cada una de los condiciones de la misma como plazo máximo para el 1 de marzo de 2013, pudiendo presentar la documentación necesaria hasta el 15 de marzo de 2013, con la excepción de lo relativo a la aplicación del Capítulo IV - »Criterios estéticos», a los que deberán adaptarse como plazo máximo para el 1 de enero de 2015, pudiendo presentar la documentación necesaria hasta el 15 de noviembre de 2014.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA

En el caso de que las terrazas para cuya instalación se solicita licencia no cumplan ni pudieran cumplir con los requisitos que la presente ordenanza exige para poder proceder a su autorización, el Ayuntamiento, en los cinco años siguientes a la entrada en vigor de la presente disposición transitoria, podrá otorgar licencia cuando concurran todas y cada una de las siguientes circunstancias:

cve: BAO-BOB-2014a050

a) Udalak dokumentu bidez jakitea terrazak xedapen iragankor hau indarrean sartu aurretik jarri direla.

b) Udalak hiria eraldatzeko planen edo proiektuen dokumentuak edukitzea, betiere plan edo proiektu horiek, ordenantza hau indarrean sartzen denetik gehienez ere bost urteko epean gauzatzekotan, aukera ematen badute establezimendu eskatzaileak dagozkion baldintzak betetzen dituen terraza bat jartzeko.

Baldintza bi horiek betetzen dituzten terrazetarako lizentzia 25. artikuluan jasotako hiru denboraldietatik denboraldi laburrerako edo luzerako baino ez da emango.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratuko da Lizentzien araubideari eta prozedura-arauei buruzko Udal Ordenantzaren 1.6.13 puntua («Terraza, kiosko, afaltegi, erakustoki eta antzekoen instalazioa»).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek indarra hartuko du beraren testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen denetik 15 egun baliodun igarotakoan, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. eta 65.2 artikuluetan ezarrita dagoen moduan, baina, lege beraren 20.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2013ko urtarriletik aurrera aplikatuko zaio terrazen instalazioari.

Sopelan, 2014ko martxoaren 6an.—Jarduneko Alkatea

(II-1612)

•

## Areatzako Udala

**Kaleko salmentari buruzko Ordenantza**

Areatzako Udalbaltzak, 2013ko abenduaren 13an egindako bilkuran kaleko salmentari buruzko udal ordenantzaren behin behineko onarpenari ekin zion. Erakusketa publikoaren epea igaro da eta erreklamazio bat aurkeztu da. Udalbatzak 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran ez zuen onartu eta ordenantza onartu zuen behin betikoz. Horregatik, ordenantzaren testu osoa argitaratu behar da.

Areatzan, 2014ko martxoaren 10ean.—Alkateak

ARRAZOIEN AZALPENA

Barne Merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak ezartzen duenez, arrazoirik gabeko oztopoak kendu behar zaizkio establezimendu-askatasunari eta zerbitzuak emateko askatasunari. Era berean, arau orokor gisa ezartzen du zerbitzu jarduera bat eskuratzeko eta horretan jardun ahal izateko, ez dela baimen-araubide baten mende egon behar.

Zuzentarau hori Espainiako antolamendu juridikoan sartzeko prozesuaren zati bat eginda dago, zerbitzu-jarduerak libreki eskuratu eta jarduteari buruzko legearen bidez (azaroaren 23ko 17/2009 Legea).

Hala eta guztiz ere, 2006/123/EE Zuzentarauaren aplikazioa ez da agortzen Lege hori onartuta; izan ere, Administrazio bat baino gehiago dira zerbitzu alorrean arauak emateko eskumena dutenak eta, beraz, beren arauak aldatu behar dituzte Zuzentarau horri egokitzeko.

Areatzako Udalak, Lurralde Administrazio Publikoa den aldetik, ordenantza eta erregelamendu bidez arautuak ditu Zuzentarau horren eta azaroaren 23ko 17/2009 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren zerbitzu-jarduerak; beraz, horietara egokitu behar dira.

Hala ere, ordenantza eta erregelamendu horietako asko Autonomia Erkidegoaren eskumeneko diren sektore-mailako arauen mende daude, eta horiek ez dira egokitu; beraz, udal araudien egokitzapena aurretik lege-gaitasuna duten arloetan egin beharko da, edo bestela, udal arauak izaera autonomoa duenetan.

a) Que el Ayuntamiento tenga constancia documental de que las terrazas han venido instalándose con carácter previo a la entrada en vigor de la presente disposición transitoria.

b) Que existan en el Ayuntamiento documentos de planes o proyectos de transformación urbana que, de ejecutarse en el plazo máximo de cinco años a la entrada en vigor de la presente ordenanza, posibiliten que el establecimiento solicitante pueda instalar una terraza que cumpla con los requisitos establecidos.

La licencia para las terrazas que cumplan estas dos condiciones sólo podrá concederse para la temporada corta o larga, de las tres contempladas en el artículo 25.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el apartado 1.6.13 (Instalación e terrazas, kioskos, cenadores, exposiciones y similares) de la «Ordenanza municipal de Normas procedimentales y régimen de las licencias».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días hábiles desde la publicación de su texto íntegro en el «Boletín Oficial de Bizkaia», de acuerdo con lo establecido en el artículo 70, en relación con el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, y si bien, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.1 de la misma, se aplicará a la instalación de terrazas a partir de enero de 2013.

En Sopelana, a 6 de marzo de 2014.—El Alcalde en funciones

(II-1612)

•

## Ayuntamiento de Areatza

**Ordenanza sobre venta ambulante**

Habiendo transcurrido el periodo de exposición pública del acuerdo de aprobación provisional sobre la ordenanza sobre venta ambulante adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 13 de diciembre, y habiéndose presentado una reclamación desestimada por el Pleno en sesión celebrada el 10 de marzo de 2014, se aprueba definitivamente procediéndose a la publicación de su texto íntegro.

En Areatza, a 10 de marzo de 2014.—El Alcalde

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre, relativa a los servicios en el mercado interior, establece la obligación de eliminar los obstáculos injustificados a la libertad de establecimiento y de prestación de servicios. Asimismo, establece como regla general para el acceso a una actividad de servicios y su ejercicio la no sujeción a régimen de autorización.

La transposición de la citada Directiva al ordenamiento jurídico español se ha efectuado, parcialmente, por la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio.

No obstante, la aplicación de la Directiva 2006/123/CE no se agota con la aprobación de la citada Ley, puesto que son varias las Administraciones con competencia normativa en materia de servicios y que, por tanto, deben proceder a la modificación de sus normas a los efectos de adaptación a la citada Directiva.

El Ayuntamiento de Areatza, como Administración Pública Territorial, ha regulado a través de sus ordenanzas y reglamentos diferentes actividades de servicios que se encuentran encuadradas en el ámbito de aplicación de la Directiva y de la Ley 17/2009, de 23 de noviembre y deben ser, por tanto, acomodadas a las mismas.

No obstante, muchas de esas ordenanzas y reglamentos dependen de la existencia de normas de carácter sectorial competencia de la Comunidad Autónoma que no han sido objeto de adaptación, lo que conlleva una restricción de la adaptación de la normativa municipal a aquellas materias en las que exista previa habilitación legal o en las que la norma municipal detente carácter autónomo.

cve: BAO-BOB-2014a050